

***SEKRETUEN HAITZULOAN:***  
**HAUR POESIAREN FANTASIAN**  
**MURGILTZEKO PROPOSAMENA**  
**GRADU AMAIERAKO LANA**

**EGILEA:** Heriz Kortabarria, Miren

**ZUZENDARIA:** Zelaieta Anta, Edu

**2016/2017**

## LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honetan poesiaren munduan murgiltzeko “*Sekretuen haitzuloa*” deritzogun jolasez beteriko espazioa aurkeztuko da. Horretarako, Haur eta Gazte Literatura (HGL), bere bilakaera, funtzio eta gaur egun duen garrantzian sakonduz, Haur Poesia, emozioak eta jolasa aztertu dira. Honako lan hau, Haur Hezkuntzan poesia benetan zer den ulertzeko, umeengana hurbiltzeko eta haien egunerokotasunean txertatzeko asmoz ikastetxeetan mundu fantastiko txiki bat sortzeko helburuarekin burutu da, bi galdera-eragiletan zentratuz: 1) Zer egin daiteke jada haurrengan existitzen den poesiaren fantasia pizteko?; 2) Nola txertatu dezakegu egungo hezkuntza ereduan? Horrenbestez, hurrengo lerroetan poesiaren mundu fantastikoak errealera salto egingo du, betiere jolasean eta gozamenean oinarrituz.

*Hitz gakoak:* Haur Poesia, ahozko komunikazioa, jolasa, emozioak, Haur Hezkuntza.

## RESUMEN

Este Trabajo de Fin de Grado presenta un espacio lleno de juegos llamado “La cueva de los secretos” con el fin de sumergirse en el mundo de la poesía. De esta manera, examinando la Literatura Infantil y Juvenil (LIJ), su evolución, sus funciones y la importancia que tiene hoy en día se ha analizado la Poesía Infantil, las emociones y el juego. Este proyecto ha sido realizado con el objetivo de entender de verdad lo que significa la poesía en Educación Infantil y, así, creando un pequeño mundo fantástico, poder acercarla a los niños y niñas a la vez que la introducimos en su día a día. Para ello, han sido planteadas dos preguntas clave: 1) ¿Qué se puede hacer para fomentar la fantasía de la poesía que existe en los niños y niñas?; 2) ¿Cómo podemos incorporarla en el modelo de educación actual? Por lo tanto, en las siguientes líneas el mundo fantástico saltará a la realidad, centrándose en todo momento en el juego y el placer.

*Palabras clave:* Poesía Infantil, comunicación oral, juego, emociones, Educación Infantil.

## ABSTRACT

In this Final Degree Project a space which has been called “The cave of secrets” will be presented in order to introduce poetry to children. To do so, taking as the core Child and Youth literature , their evolution throughout time, their purpose and their importance nowadays Child Poetry, feelings and game have been examined. This work has as its aim to create a fantastic world in the schools. A fantastic world which will serve to understand better what poetry in Early Childhood Education is, a fantastic world which will serve to bring closer poetry to children and which will help to incorporate it in their everyday routine. To do so, the present work will focus on these following two questions: 1) What can we do to revive the already existing fantasy of poetry that children have?; 2) How can we incorporate it to the current Education system? Therefore, in the following lines the fantastic world in which poetry lives will be jumping to reality, but always being based on games and enjoyment.

*Key words:* Infant Poetry, oral communication, game, feelings, Early Childhood Education.

## **AURKIBIDEA**

1. SARRERA .....	4
2. JUSTIFIKAZIOA.....	6
3. HELBURUAK .....	7
4. MARKO TEORIKOA .....	8
4.1 Literatura.....	8
4.2 Haur eta Gazte Literatura (HGL).....	10
4.2.1 HGLren bilakaera: Ahozkotik idatzizkora eta haratago. ....	10
4.2.2 HGLren funtzioak eta literatur gaitasuna .....	12
4.3 Haur Poesia.....	14
4.3.1 Definizioa eta ezaugarri nagusiak.....	14
4.3.2 Haur Poesia lantzeko bidea .....	15
4.4 Haur Poesia eta jolasa.....	17
4.5 Curriculumaren azterketa .....	19
5. POESIAREN MUNDUA: Sekretuen haitzuloa .....	21
5.1 Deskribapena eta justifikazioa .....	21
5.2 Azalpena eta ikuspegi kurrikularra.....	23
5.3 Programazioa .....	28
5.4 Sekretuen haitzuloa.....	30
6. BALIZKO APLIKAZIOARI BURUZKO GOGOETAK .....	47
7. BALORAZIO PERTSONALA .....	49
8. ERREFERENTZIAK.....	51

## **ERANSKINAK**

## 1. SARRERA

Eskuartean dugun dokumentua Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Gradu Amaierako Lanari (GrAL) dagokio; 4.mailako ikasle guztiok azken urtean egin beharrekoa, hain zuzen. Proiektua *Sekretuen haitzuloan: Haur Poesiaren fantasian murgiltzeko proposamena* izenpean ezagutzera eman da, aurrerago ikusiko dugun bezala, lanean beti presente izango den ideia dugulako hau. Egitasmoa poesia umeei hurbiltzeko eta haien egunerokotasunean txertatzeko helburuarekin burutu da hasieratik, horretarako, poesiaren mundu fantastikoan murgilduko gaituen espazio berritzaile bat sortuz. Hain zuzen, Cristina Laorden Gutiérrez eta Concepción Pérez López (2002) ikertzaileen ustetan, eskolako edozein espaziok hezitzailea izan behar duelako. Horregatik, gure proiektu eta egitasmoak kontuan harturik espazioak koherentziaz antolatu beharko ditugu, proposamen honetan ikusiko dugun bezala.

Egitasmo hau, beraz, norberaren gaitasunak, trebetasunak eta ahalmen akademikoa erakusteko proiektua izateaz gain lan erabilgarria ere bada. Izan ere, Graduan lau urtetan ikasitakoa eta konkretuki GrAL-ren bitartez aztertutako gaia (Haur Poesia) lantzeko modu interesgarria izan daiteke, edozein hezitzaile baliogarria gerta dakiokeena. Ildo horretatik, irakaslegaion etorkizunerako zein gaur egungo hezkuntzako langileentzako ekarpen egoki bilakatu daiteke.

Hortaz, egindako lana edonork ondo ulertu dezan, zenbait ataletan banatua ageri da. Hasteko, lanaren justifikazioan zentratzen da, hots, lanaren zergatian hain zuzen eta ondoren helburuei erreparatzen die, horri, lana oinarritzen den marko teorikoak jarraituz. Bertan, gaiaren atal teorikoa jorratuko da puntu zehatz batzuetan zentratuz: Literaturan, Haur eta Gazte Literaturan (HGL), honen bilakaera, funtzio eta gaur egun duen garrantzian, Haur Poesian, haren kontzeptuan eta lantzeko moduan eta, azkenik, jolasean.

Marko teorikoa amaituta, poesiaren munduan murgiltzeko proposamen didaktikoa aurkeztuko da: *Sekretuen haitzuloa*. Horretarako, lehenik eta behin, proposamena bera deskribatzen eta justifikatzen hasiko da eta, ondoren, aurrera eramanean nahi den lanaren azalpena eta ikuspegi kurrikularrari eutsiko zaio. Proposamenean gehiago sakontzeko asmotan, programazioa azalduko da eta, ondoren, zenbait taularen bitartez lanaren nondik norako zehatzak edo eginbeharrekoak azalduko dira.

Ondoren, balizko aplikazioari buruzko gogoeta aurkeztuko da, horri lanari buruzko balorazio pertsonalak jarraituz. Eta azkenik, bibliografia zein internetgrafia eta

eranskinak aurkeztuko dira, non lanean zehar erabilitako oinarri, material eta erreferenteak eskuragarri izango diren.

Azaldurikoaren harira, poesiaren mundu zabalean ez galtzeko eta lanaren nondik norakoak zehazteko asmotan bi galdera plazaratuko dira hurrengo lerroetan: 1) Zer egin daiteke jada hurrengan existitzen den poesiaren fantasia pizteko?; 2) Nola txertatu dezakegu egungo hezkuntza eremuan?

Gauzak horrela, lanaren antolamenduaren nondik norakoak ulertuta, ondorengo lerroetan zenbait ikastetxetan hurrekin poesia lantzeko proposamen didaktiko bat aurkeztuko da

## 2. JUSTIFIKAZIOA

Haur poesia mundu bat da, mundu bizi, alai eta magikoa. Fantasiaz beteriko gotorlekua da. Amildegirik garaiena izan daiteke, putzurik sakonena, kobazulorik ilunena, deserturik bustiena edota munduaren bukaerako lurmuturra. Haur poesia, amestu dezakegun guztia da, isiltasunik zaratatsuena.

Egun bizi garen gizarte mekanizatu, mugatu eta hotz honetan, non teknika den boteretsu, gero eta beharrezkoago egiten da poesia; fantasia eta edertasunaren mundua. Izan ere, gizarte deshumanizatu hau, benetan poetikoa denaz oroimin da. Modu horretan, gauzen mekanizazioaren deseraikitzea posible izango da poesia gure bizitzetan txertatzen goazen heinean (Bravo, 1992).

Horretarako, ezinbestekotzat jotzen da poesia lantzea, etxean, familian, kalean eta nola ez, eskolan. Amando López Valero, Isabel Jerez Martínez y Eduardo Encabo Fernándezen (2010) ustetan, hain zuzen, folkloreak sentiberatasuna fintzen du; beraz, kantu, ipuin eta poesia gabe hazitako hurrek besteak baino pobreagoak izango dira espiritualki.

Lan honen zergatian jarraituz, ezin dugu Haur Hezkuntza alde batera utzi, umearen lehenengo urteak oso garrantzitsuak eta kontuan hartzekoak izango baitira poesia lantzeko, Antonio Venturaren (1992, 40.or.) hitzetan ezinbestekoa baita:

“La poesía, la más honda de las expresiones literarias, se aborda poco en la escuela, y urge recuperarla, como urge recuperar la palabra. Del romancero al poema visual hay suficientes versos para jugar, reír, emocionar”.

Linguistikoki garatzeko tresna bikaina izateaz gain, haur bakoitzaren barrua, usteak eta pentsamenduak ezagutzeko mundua izan daiteke poesia. Garai bateko gizakiontzako itsasoa zena, hori da poesia, munduaren amaiera, fantasiaz, munstro liluragarriez eta bizitzaz beterik dagoen mundu magikoa.

Aspaldiko sinesmenak eta folklorea kontuan hartzen baditugu, euskal tradizioak duen aberastasuna aprobetxatu beharko dugu, Juan Kruz Igerabidek (2003) dioenez, biltegi ederreko atea itxirik dauzkan tradizioak ez baitu ezertarako balio, liburutegi ederra baina irakurlerik ez. Haur poesiak, biltegi horretara jo behar du; lan eginez eta uztaberrituz.

Horren harira, haurrentzat baliagarria bezain dibertigarria izan daitekeelako eta Euskal Herrian poesiak duen aberastasuna nabarmentzeko, azken urte honetako Gradu Amaierako Lana gai honetan zentratu dut, artean deskubritu gabe neukan haur poesian murgiltzeko asmoz.

### 3. HELBURUAK

Gradu Amaierako Lan hau egiterako orduan zenbait helburu mota zehaztu behar izan ditut; alde batetik, helburu pertsonalak eta, bestetik, kolektiboak edo akademikoak deritzenak.

Helburu pertsonalei dagokienez, azpimarragarriena ikastea izan da. Izan ere, ezer gutxi nekien gaiari buruz eta hori, Haur Poesiaren gaia aukeratzeko arrazoi bat izan zela esan dezaket. Oso motibagarria iruditu zitzaidan ideia, hots, ikasteko aukera ezin hobea.

Bigarren helburu pertsonala disfrutatzea izango zela zehaztu nuen, lehenarekin erabat loturik joango zena. Haur Hezkuntzan ikasteko jolasa beharrezkoa den bezala, bizitza osoan zehar ikasteko ere disfrutatzea ezinbestekoa baita.

Helburu akademikoen kasuan, garrantzia eman nion lan funtzional bat egiteari, hots, bai gaur eta baita etorkizunean ere erabilgarria izango zaidan zerbait burutzeari. Horrela, irakasle bezala lan egiten dudanean, oraingoan topatutako poesiaren altxorra umeei ere hurbildu ahal izango diet. Gainera, niretzat gai berri zamarra izanik, irakasle bezala trebatzeko ere baliagarria izango zaidalakoan nago.

Aurretik aipaturiko helburu guztiak laburbilduz, ondorengo hauek izango dira egitasmoaren xede nagusiak:

- Lanarekin ikastea eta, ahal dela, ikasitakoaz disfrutatzea.
- Etorkizunerako erabilgarria izango zaidan poesiari buruzko lan bat sortzea.
- Irakasle bezala poesiaren gaian trebatzea eta, horrela, Haur Hezkuntza eta poesiaren arteko lotura sustatzea.
- Egunerokotasunean lantzen den poesiari indarra ematea.
- Poesia umeei hurbiltzeko eta gaur egungo hezkuntza sisteman txertatzeko proposamen didaktikoa egitea.



#### **4. MARKO TEORIKOA**

Azalduriko helburuak lortu ahal izateko eta Gradu Amaierako Lanaren alde teorikoari eusteko, hurrengo lerroetan gaiari buruzko marko teorikoa dugu. Modu gradual batean, Literaturaren orokortasunetik Haur Poesiara arteko ibilbide laburra egingo da.

Horrela, Haur eta Gazte Literaturak (HGL) izandako bilakaeratik hasiko gara, betetzen dituen funtzio ezberdinak eta duen garrantzia azalduz, eta ondoren Haur Poesiarekin sartuko gara bete-betean. Poesiaren kontzeptua behin ulertuta, lantzeko bidearen nondik norakoak azaldu eta mundu magikoan sartzeko beharrezkoa dugun giltzan zentratuko gara, jolasean hain zuzen.

##### **4.1 Literatura**

Egun bizi garen gizarte alfabetatu eta garatu honetan, hitzak eta horien erabilera artistikoak haurren egunerokotasun bilakatu dira. Kantuak, aho-korapiloak zein errimez beteriko hitz jolasak maiz entzuten dituzte umeek, Teresa Colomerren (2005) arabera, haurren hizkuntzaren garapenean literatura beti presente baitago. Hori nabaria da umeak, ingurukoek esandakoa errepikatzen edota abesti bat entzuterakoan helduaren besoetan egoteko nahia erakusten duen momentuan bertan.

Horrelako jarreraren bidez literaturak, gizakiongan jaiotzen garen momentutik duen garrantzia erabatekoa dela suposatu dezakegu. Horregatik, Victor Morenok (2009) literatura, inertziaz, ohituraz edo errutina pedagogiko hutsez soilik irakatsi behar ez dela ulertarazten du. Izan ere, literatura kulturaren beste parte bat bezala, erabilera eremu eta hizkuntza literario espezifikokoaren garapen edo fikzioen sortzaile den elementu bezala ulertu da.

Literaturak umearen ikaskuntza prozesua errazten duela esan genezake, haren jakin-mina pizten baitu segituan. Gainera, haurraren zentzu guztiak estimulatzeaz aparte, motrizitatea, entzumena eta emozio zein sentimenduen adierazpena ere lantzen dira, harreman osasuntsuagoak eraikiz. Hau da, konfiantzazko erlazioak sortzen dira haurraren eta istorioa kontatzen ari den helduaren artean, honek lagunduko baitio bere eskemak eta ezagutza berrien arteko loturak eraikitzen (Etxaniz, 1996). Baina horretarako, helduak oso ondo ulertu behar du irakurtzearen esanahia.

Literatura eta bere garrantzia ulertu eta gero, ezinbestekoa zaigu bere parte den Haur eta Gazte Literatura (HGL) nabarmentzea. Are gehiago azken urteotan izan duen berpiztea kontuan hartuta. Horren arrazoi nagusia, haurtzarolari ematen zaion tratamendu berria izan litzateke, haurra, gizontxo edo emakumetxo bat bezala

ikustetik, bere nortasuna eta ezaugarriak dituen pertsona izatera igaro baita (Etxaniz, 1992).

Modu horretan, literaturari erreparatuz gero ipuinei ere egin beharko diegu so, arrazoen batengatik izango baitira beti erabili izan diren baliabideak. Pentsatzen, pertsona izaten eta besteekin elkarbizitzen ikasteko errekurtsio aproposak dira. Horien bidez, imajinazioa estimulatzeaz gain, kuriositatea eta jakin-mina pizteaz batera, ikaskuntza serie batzuei ere hasiera emateko euskarri motibagarriak izan dira, hala nola: gainontzekoen ekintzak eta sentimenduak ulertzea, pertsonaiekin identifikatzea, fantasia, imajinazioa askatzea eta giza balioei esanahia aurkitzea (Ramos eta Vadillo, 2012).

Arrazoi horregatik gordetzen dira oraindik, neurri handi batean, ahozko tradizioa eta ipuinak (Lluch, 2004). Baina, imajinazioa askatzeaz eta giza balioei esanahia aurkitzeaz gain, urteetan zehar ipuinen bidez eskolan, familian eta orokorrean gizartean mezuak zabaltzen joan dira. Ipuin zaharrak eta horietako pertsonaiak aipatu beharko genituzke lehenik eta behin, gehienak gizon zuri, aberats, osasuntsu eta gazteak zirelako. Horrelako adibideen erruz, genero rola askoz ere markatuago agertu izan dira, berezko ezaugarriak izango balira bezala (Juliano in Arrieta, 2005).

Haur Literaturaren kasuan konkretuki, bere funtzio nagusia mendeetan zehar eredu femenino eta maskulinoen igorpenaz arduratzea izan da. Neskato eta mutikoei paper sexual konkretuak egokituak izan zaizkie: nolakoak izan behar diren, zer jarrera izan behar duten eta zer nolako gaitasunak izango dituzten erabaki dutenak. Horrela, Bea Medranoren (2007) aburuz, generoa eraikitzen joan da, ipuinetako mutilak azkarrak, dinamikoak, trebeak eta ausartak bihurtu dira, neskatilak, ederrak, pasiboak, lasaiak, lirainak eta garbiak diren bitartean.

Herri ipuinetan, emakumezkoak ez dira pasiboak izan, aita edo gizonaren aurka altxatu baitira edo ipuineko erregearen aholkulari maltzurak bilakatu dira boterea lortzeko (Juliano in Arrieta, 2005). Azken aldian, gainera, gero eta ugariagoak dira heroien papera hartzen duten ipuinetako neskato protagonistak.

Victoria Fernandezek (2015) azaldu bezala, emakumezkoaren eredu hori hibridoa da, hau da, neskatilak heroiak izaterako orduan gehienbat gizonezkoen estereotipoari erantzuten diote. Hortaz, gizonezkoen ezaugarriak bereganatzen dituzte, ausardiarena batik bat eta ez dituzte tradizioz emakumezkoenak izan diren ontasuna ezta edertasuna galtzen.

## **4.2 Haur eta Gazte Literatura (HGL)**

### **4.2.1 HGLren bilakaera: Ahozkotik idatzizkora eta haratago.**

Teresa Colomerrek (2005) Haur eta gazte Literatura (HGL) eskailera batekin alderatzen du, gorantz joateko etengabe haurrei laguntzen ari dena. Eskailera-maila batetik bestera hizkuntza eta errepresentazio artistikoko forma konplexuagoak menperatzea ahalbidetzen duen eskailera baten antzera. Haiei bideraturik dauden liburu zein poemetan trama korapilatsuagoak agertzen doaz, pertsonai ezberdinez eta ezusteko amaiezez osatuak daudenak. Baina eskailera hori ez da bat-batean sortu, ibilbide historiko luze eta garrantzitsua izan baitu, ahozko tradiziotik hasita gaur egun dena izatera heldu den arte.

Herri bakoitzak bere folklorea du, zeinaren bidez mundua ikusteko duten modua, ohiturak eta sinesmenak azaltzen diren. Horretarako, antzinatek, igarkizunak, ipuinak, haur-jolasak, aho-korapiloak eta olerkiak erabili izan dira, generazioz generazio ahoz transmititzen joan direnak (Etxaniz, 1992).

Kontuan izan behar dugu hizki inprimatua ezagutzen ez duen gizarte batez mintzatzen gabiltzala, hau da, paperean grafikoki jasotzeko baliabide boteretsua badela ezagutzen ez duen gizarteaz. Hortaz, kontalariak erabilitako baliabideak, diskurtsoaren ezaugarriak zein publikoa idatzizko literaturak duenaren oso desberdina izango da. Hori horrela, gizarte horrek pentsamendu artikulatua gorde eta berreskuratzeko arazoari irtenbide egoki bat emateko, ahoz errepikatzea ahalbidetuko duten formula sail batez hornitu behar ditu bere kontakizunak; errepikapenak, antitesiak, asonantziak etab. erabiliz. (Lluch, 2004). Horiek, oroimenean gordetzeko bidea emango diete, entzule horien beren aurrean edota beste batzuen aurrean errepikatu ahal izateko; horrela iraungo baitu bizirik kontakizunak.

Historian zehar ahoz aho kontatuak izan direnez, ez dute egile ezagunik eta herriak mendez mendez sortu, jantzi eta bizirik mantendu ditu. Hortaz, bertan azpimarratzen diren gaiak itsasoa bezain zabalak dira, ordukoen pentsamendu eta sinesteak, lanbide eta eginkizunen transmisioa zein historia baitira nabariak, Jose Maria Satrustegiren (2002) esanetan. Gai horiek eta ipuin herrikoiak herri xehearen eguneroko bizitzan sortuak izan diren heinean, egunerokotasunetik ihes egiten laguntzen zieten garaiko pertsona eta familiei. Azken finean, ipuin horietan edonor sentitu eta izan zitekeen printzesa edo heroia (Arratibel in Arrieta, 2005).

XIX. mendean sartzetakoan, Gemma Lluchek (2004) ondo azaltzen duen bezala, ahozko literaturak beste era bateko kontakizunekin lehiatu behar izan zuen,

adituek *paraliteratura* deitu izan dioten eta garaiko egunkariekin eta aldizkariekin batera foileto gisa saltzen zen nobela herrikoiarekin, hain zuzen. Momentu horretan ahozko kontakizun batek berezkoak zituen ezaugarri asko eraldatu egin ziren, ahozkotasanari eta kultura murrizt edo hurbil bati zegozkion istorioak, idazkerarenak izatera pasatuz, hau da, literatura, kultura eta zibilizazio baten zati izatera helduz.

Hala ere, hori ez zen literaturak eman zuen pauso bakarra, lehena soilik izan baitzen. Garai horretan bertan, Euskal Herrian, lehen euskal haur liburua kaleratu zen. Bizenta Moguelek idatziriko *Ipuin Onac* deiturikoa, Xabier Etxanizek (1992) aipatzen duen bezala, Esoporen berrogeita hamar alegiaz osaturik dagoena. Gerora, idatzizko literaturak emandako pausoak etengabeak izan dira; Haur Literatura indartzeko erakundeen sorrera, ikastolen eta euskara batuaren lehen hastapenak, etab.

Idaztearekin, aldaera bakar bat finkatu zenez, literatur komunikazioa bera erabat aldatu zen, irakurketa pribaturako pauso bat emanez, irakurtzen ez zekien publikoa baztertuz. Horren ondorioz, gizarte maila, ideologia eta munduaren ikuspegia aldatu egin ziren, ezaugarri jakin batzuk (gizona, heldua eta erdi mailakoa) betetzen zituzten idazleek ordeztu baitzituzten kontalariak (Lluch, 2004).

Esan beharra dago literatura honen ezaugarriak ahozkoarenak baino gehiago aldatu zirela, aurreko uniformetasuna pixka bat areagotuz. Idatzizko Literaturaren kasuan, idazleak zein jardun zerabilen eta zein asmo zituen, horiek izan ohi ziren kontuan hartzen ziren faktoreak (Gomez, 2002).

Hasiera batean ipuin gehienek funtzio didaktikoa zuten, mundua azaltzeko erabiltzen baitziren, nahiz eta, Euskal Herrian adibidez, gerraren ondoren didaktismo horrek inposatutakoa izateari utzi (Etxaniz, 1992). Perraulten kasuan, berriz, liburuak kutsu hezitzailea zuten, Genaro Gomezek (2002) dioenagatik, haurrek gizartean jokatu behar zituzten rolak ikustarazteko erabiltzen baitzituen.

Ipuinek izan duten funtzioen antzera, ipuinak eurak ere aldatuz joan dira urteetan zehar. Horrela, hizkuntza idatzia garrantzia hartzen joan den ahala, ipuinak distortsionatzen joan izan dira. Horregatik, Yolanda Arrietaren esanetan (2005) gaur egun milaka bertsio aurkitu ditzakegu, jatorri originaletik oso urrun daudenak. Horren adibiderik garbiena edo behintzat ezagunena Grimm anaiek eginikoa izan daiteke, haurrei egokitzeko estilo zein gai aldaketak erabili zituztelako. Haien ustetan umeentzat egokiak ez ziren gai guztiak kendu zituzten, esate baterako sexuarena, kontakizunetatik guztiz desagertu baitzen (Gomez, 2002).

Apurka-apurka literaturak bide desberdinetatik egin du aurrera, ahozkotik idatzizkora eta bertatik film eta telesailera. Nahiz eta literaturarekin zerikusia ez izan, XX. mendearen erdi aldean egitura narratiboa zuen beste lehiakide horiek sortu ziren. Gainera, harrigarria bada ere, egile batzuek tradizioa jaso zuten, adibide gisa Walt Disneyen ipuin miragarrien egokitzapena eta Errauskineren egokitzapen berri bezala *Pretty Woman* filma aipa genitzake. Ikusleak dagoeneko ezagutzen eta bizi izan dituen munduetara eramaten gaituzten film eta istorioak dira, lasaigarriak gertatzen diren eskema unibertsalak bezala bizitzen ditugunak (Lluch, 2004).

Azken horiek tradizioa jaso arren, izaten hasi zirenetik gaur egun izatera heldu direnera arte aldaketa handia eman dute. Guztietatik aipagarriena Walt Disney litzateke. Sortu zen unean ez zegoen umeei bideraturik eta bere istorioetan sozialki gaizki ikusita zeuden jokabideak zituzten pertsonaien bidez barrea eragiten ahalegintzen zen. Baina apurka-apurka pertsonaiak, istorioak eta horien guztien ezaugarriak aldatzen joan dira. Gaur egun Disneyk ez baitu entretenitze hutsa bilatzen, balio konkretu batzuetan hezteka baizik. Girouxen (2001) arabera, transmititzen dituen balioen artean autoritatearenganako errespetuarekin, hierarkia sozialarekin, familia neutral tradizionalekin, ideologia patriarkalarekin, arrazako diferentziekin edota kontsumismoaren defentsarekin loturik daudenak aurkitu ditzakegu, besteak beste (in Digón, 2006).

Modu horretan, Disneyk eskaintzen dituen istorio guztiak estereotipo sexistez, arrazistez eta klasistez beterik aurkitzen ditugu, publiko inkontziente batera bideraturik daudenak. Azken finean, Disneyk hiritarrak, balio kontserbadoreak onartzen dituzten eta orden soziala zalantzan jartzen ez duten kontsumitzaile eta ikusle bezala ulertzen ditu (Digón, 2006).

Horregatik, Disneyk duen pentsamendu eta lan egiteko moduarengatik, gaur egungo gizartean erabat integratuta egotea lortu du. Horrela, nahiz eta gaiztoen zigorrak biguntzeko joerak zein eraginik ez duten "bufoi" pertsonaiak sortu eta istorioen alderdirik ankerrenak ezabatu, faktoria honen lorpenik handiena egungo haurren kultur erreferentzia kanonikoa bihurtzea izan da, Manu Lopez Gaseniren arabera (2006).

#### **4.2.2 HGLren funtzioak eta literatur gaitasuna**

Haur eta Gazte Literaturak (HGL) hainbat funtzio betetzen ditu literatur gaitasunarekin eta irakurzaletasunarekin erabat loturik daudenak. Horien artean, honako hauek aurkitu ditzakegu: literatur gaitasuna eta irakurketa ohiturak suspertzea, irakurle inplizituak sortzea, esanahia sortzeko interakzioa eta inplikazioa sustatzea. Horregatik, idazketa eta irakurketa ezinbesteko tresna bilakatu dira literatur

hezkontzaren helburua lortzeko eta bere osotasunean ulertu ahal izateko (Mendoza, 2008).

Izatez, irakaskuntza/ikaskuntza helburuen arabera irakurketa deskodifikazio ekintza bezala edo ulermen eta interpretazio eraketa prozesu bezala har daiteke. Hortaz, Antonio Mendozaren (2008) ustetan, deskodifikatzen ikastea irakurle bilakatzeko lehenengo pausoa izango da eta ondoren testuak dioena ulertu eta interpretatu beharko dugu. Prozesu honetan interpretazioa izango litzateke alderdirik konplexuena, honetan esanahiaren ulermena eta zentzuaren ulermena kontuan hartu behar baitira.

Haur bakoitzaren literatur gaitasuna eta irakurzaletasuna kontuan izanda, literaturak zenbait funtzio aintzat hartu beharko ditu. Horien artean, kontaketen edo istorioen munduan murgiltzeko bidea izatea, hizkuntzaren menperatzea garatzea eta sozializazio kulturalaren esparruan barneratzea izango liratekeenak (Colomer, 2010).

Kontaketen edo istorioen iruditegiaren munduan murgiltzean, folkloean aurkitzen ditugun sinbolo, mito eta irudiekin lan egin beharko dugu. Hau da, Teresa Colomerren (2010) arabera, gizakiok mundua eta harreman sozialak ulertzeko erabiltzen dituzten formulak direnak.

Izan ere, sinboloek ulertu ezin duguna azaltzeko balio digute eta istorioek horretan zerikusi handia daukate. Horiek, dimentsio ezberdinak sintetizatzen dituzte; narratiboak, antropologikoak, historikoak, sozialak eta psikologikoak, hain zuzen ere. Batzuetan haien artean aurkakoak izan daitezke eta esandakoaren atzean beste mezu bat ezkutatu dezakete, igorri nahi duten ideiaren esangura aberastuz. Horregatik, Irene Henche Zabalarren ustetan (2008), pertsonen munduari buruzko perspektibein zein ametsei forma emateko erabili izan dira. Sinbolo horien adibide dira ipuin askotan agertzen diren ondorengo hauek: bi zenbakia, etxea, gatza, emakume zaharra, lo hartzea, sua, dantza egitea, etab (Muler eta Lasarte, 2014).

Literaturan hurrek txikitatik ikasten dute gizakien jokabideak eta hizkuntza arautuak daudela, horrela, ulermen garbiago bat ahalbidetuko zaie. Izan ere, haur liburuek literatur eredu konplexuagoak ulertzen lagunduko die, horrelako inguru batean egoteak estimulazio aberatsa jasotzea ahalbidetuz. Bidean jarraituz, bigarren funtzioa horrelako testuinguru egoki bat sortzea izango da. Baina inguruak transmitituko dien ezagutzak egokiak izateko, horiek dinamikoak bilakatzeko ezinbestekoa da. Ondorioz, hirugarren funtzio bezala literaturak sozializazioan egin beharreko lan pisutsua izango

litzateke, ingurukoen arteko dialogoa bultzatu behar duelako, mundu erreala nolakoa den edo nolako izan beharko lukeen jakitera emanez (Colomer, 2010).

Literaturak aurretik aipaturiko funtzio horiek betetzen dituen heinean, Antonio Mendozak (2010) dioenez, haurrak aurretik aipaturiko literatur gaitasuna eta honen helburuak garatzen joango dira. Hau da, lehenengo, literatur obren artean loturak ezarriz, generoa, gaia eta ideologia mailaren arabera, literatur ekoizpenak erlazionatzea lortuko lukete. Bigarrenez, autonomoki testuaz gozatzeko eta balorazioak eta interpretazioak ezartzeko gai diren irakurleak osatuko lirateke, bakoitzak bere irizpide kritikoak sortuz. Hirugarrenez, irakurleak testua eta autorearen asmoaren arteko erlazioak egiten ikasiko luke eta, azkenik, ezagutza metaliterarioz hornituko lirateke, testuaren esanahira iristeko.

### **4.3 Haur Poesia**

#### **4.3.1 Definizioa eta ezaugarri nagusiak**

Poesia, Haur eta Gazte Literaturaren (HGL) parte den genero literario bat gehiago bezala ulertu genezake. Hala ere, Georges Jeanen (1992) iritziz, hori baino askoz gehiago da. Poesia ez da beste irakasgaien antzera ikasten, bertan irudimenak eta sentiberatasunak inteligentziak bezain besteko garrantzia dute. Antonio Venturak (1992) definitzen duen bezala “literaturaren Mari Errauskina” dugu poesia, literatur adierazpen sakonena.

Hortaz, poesian sakontzen hasi baino lehen hurrengo ideia argi izan behar dugu: poesia ez dute errima, metrika edo figura erretorikoak bezalako ezaugarriek soilik definitzen, nahiz eta garrantzitsuak izan, poesia askoz ere haratago doa (Bombini eta Lomas, 2016).

Poesiaren bitartez ekintza arrunt eta ohikoenak ere eder bezain irudimentsuak bilakatzen dira. Izan ere, erritmoan, sonoritatean, hitz kantitatean eta forman, sakontasunean baino gehiago oinarritzen da, nahiz eta iritzi hori atipikoa izan. Poemek modu global batean funtzionatzen dute, betiere, proportzio konkretu bat jarraituz, kantitate zehatza eta errima jakin bat, hots, orden musikal bat (Lopez, Jerez eta Encabo, 2010). Horrela, poesian, lengoaia poetikoaren musikaltasuna eta erritmoaren aldakortasuna oinarritzkoak izango dira.

Ezaugarri horiek bezain oinarritzkoak izan ziren Euskal Herrian emandako lehen hastapenak. 80ko hamarkadan bereziki, folkloreak onduak diren hautatutako piezak aurki ditzakegu, Xabier Etxanizen *haur folkloreaken bilduma* esate baterako, edota

folklorearen berreginez eta jostailu bihurturik egindako beste zenbait lan, Anjel Lertxundiren *Maria Goikoarenak* batik bat (Etxaniz eta Gaseni, 2011).

Poesiak bere hastapenak folklorea dituela esan genezake, hau da, literatura idatziak bezala ahozko tradizioan izan dezakeela jatorria. Izan ere, ahozko tradizioan ipuin sinbolikoak mitoen lurraldera garamatza, poesiaren, sinboloaren eta analogiaren lurraldera; non Juan Kruz Igerabideren (2003) ustetan, dena musikaren, koloreen eta irudien bidez mintzo den.

Aipaturiko tradizioaren kontzeptua baina, ondo ulertu behar dugu, Anjel Lertxundik (2002) deskribatzen duen bezala esate baterako:

“Tradizioa ez da oinordetzan ematen zaigun zerbait, inoiz ezin dugu esan: «jaso genuen, eta jabe gara». Ez. Lan eta neke askoren ondoren irabazten hasten garen eta inoiz osorik lortzen ez dugun altxor bat da tradizioa. [...] Hitzek, esapideek, esaerek, testu egituratuak gitariko bakoitzak bizi izandakoa, oroimena, ahots joanen oihartzuna gordetzen dituzte beren altzoan: gure unibertso pertsonala izendatzen, deskribatzen eta kontatzen dute batetik eta, bestetik, unibertso kolektiboa, hizkuntza jakin bateko hitzun guztiak metatu duten jakituria estetiko eta espresatzeko mina osatzen dute”.

Horregatik, hitz, esaera eta esapide horiek guztiak osatzen duten poesiak indar sinboliko bat duela azaltzen du Jon Benito Aranbarrik (2006), narratibak gaur egun arte izan ez duena. Modu horretan, bertsolaritzarekin batera mendearen arima izan da poesia, herritarrek ikusitakoa, sentitutakoa edo esateko asmoa zutena kontatzeko erabili duten baliabide literario nagusia.

Aipatu dugun poesia, baina, ezin dezakegu soilik idazten eta irakurtzen dugun eskolako baliabide gisa ulertu, haurren bizitzetan uneoro presente baitago; metaforetan, diskurtsoetan, publizitatean, komikietan... (Bombini eta Lomas, 2016).

#### **4.3.2 Haur Poesia lantzeko bidea**

Poesiak sortzen duen mundua nolakoa izan litekeen kontuan harturik, ezinbestekotzat jotzen da haurrei transmititu behar izatea, Carlos Bousoñosek (2010) aipatzen duen bezala, oso onuragarria baita. Izan ere, munduarekin modu zuzenean lotzen gaituen komunikazio mota da, ahoz adieraztera animatzen gaituena, hizkuntza lantzen laguntzen diguna eta irudimena zein sentiberatasunaren bidetik bideratzen gaituena. Horrela, errealitatea hobeto ezagutzeko tresna bilakatzen da (in Lopez, Jerez eta Encabo, 2010).

Gaur egun bizi garen gizarte honetan, non askotan gureak egiten ditugun joerak indibiduo bakar batera mugatzera eramaten gaituen, Carmen Bravo-Villasanteren



(1992) arabera, gero eta beharrezkoagoa da poesia; fantasia eta edertasunaren mundua.

Poesiaren munduan murgiltzeko, baina, zenbait ezaugarri kontuan hartu beharko dira. Murtziako Unibertsitateko hizkuntza eta literaturaren didaktikako ikerketa taldeak *La poesía en educación infantil* (2010) idatzian adierazi bezala, espazioak berak eta liburuak esate baterako garrantzi handikoak izango dira. Batetik, espazioa eta honen dekorazioa motibagarriak izan beharko dira, poesia ezberdinekin apainduta adibidez. Bestetik, liburuekin batera irudimenak eta jolasak presentzia handia izango dute prozesu osoan zehar ere, umeei sortu eta bizi behar izango direlako (Lopez, Jerez eta Encabo, 2010).

Espazioa, liburuak, irudimena zein autore famatuak kontuan izan arren, poesia lantzeko lehenik eta behin gure gorputzeko beste alderdi batzuk ezagutu eta landu beharko dira. Hots, musikaren kasuan bezala, entzumena, irudia eta sentiberatasuna garatzen ahalegindu beharko gara hasieratik, osterantzean berandu izango da eritmoa, sonoritate eta misterioa ulertzeko (Ventura, 1992).

Juan Kruz Igerabidek (1994) *Hegats* aldizkarian azaldu bezala, entzuten ikastea da poesiaren lehen pausoa:

“Poesiaren soinuak eguneroko hots arruntak izan daitezke, baina ez dute inoiz eguneroko horiek bezala funtzionatuko; gure barnean oihartzuna sortzea baita poesiazko soinuaren egitekoa, eta oihartzunak diren une beretik errealitate fisikotik errealitate animikora, irudimenaren mundura... sartzen baitira. Poesiaren eginkizunetako bat izan daiteke oihartzuneko doinu horiek ezagutzen joatea eta ibai eroso eta emankorretan zehar bideratzea”.

Paul Valéryk definitzen zuen bezala, poesia soinuaren eta zentzuaren arteko hartu-eman iraunkorra da. Hortaz, lehenik interesatuko zaiguna soinuaren zentratzea izango da, gero zentzua eman ahal izateko (in Moreno, 1998).

Hori lortzeko entzuten ikasi beharra dago, soinu desberdinak desberdintzen eta moldatzen ikasi beharko du haurrak txikitatik. Hasieratik entzuten duten eta oso gustuko dutena biko eritmoa litzateke, amaren sabelean aurkitzen direnean entzuten duten eritmo konstantea baita, bere bihotzarena. Horrela, eritmo horrek, doinukera gozoak, gorabehera handiegirik gabekoak eta hots epelak umeari atseginak sortaraziko zaizkio, amaren sabelean emandako denbora atsegina izan bada (Igerabide, 1994).

Hala ere, poesia guztiz ezagutzeko, soinuaren bidea ez da jarraitu beharreko bakarra, irudiak osatzen baitu ibilbide osoa. Irudiaren bidez haurrak, etengabe

zehazten, aztertzen eta paradigmak sortzen ikasten du. Hortaz, Juan Kruz Igerabideren (1994) arabera, haurrari irudiak eskaintzen dizkiogunean, bere adierazpide aukerak bultzatzeaz gain bere ezagupen indarra ere gailenduko da.

Entzumenaren eta irudiaren bide hori jarraitzen duen adibide bezala *Bularretik Mintzora* egitasmoa aipa genezake, Galtzagorri Elkarteak (2008) 0-8 urte bitarteko haurrengan irakurzaletasuna sustatzeko martxan jarri zuena. Bertan, hain zuzen, umeak jaiotzen den momentutik entzuten eta errepikatzen dituen soinuei erreparatzen baitzaie, amaren bularrarenak, bihotzarenak, etab. Gerora umeentzat hain garrantzitsuak diren bizipenei.

Bidean aurrera jarraitzeko, baina, haurrak inguru gertuenaren laguntza behar izango du; irakasleena, gurasoena, etab. *Bularretik Mintzora* proiektuan egiten diren saioetan ikusi dezakegun bezala, guztiek parte hartzen baitute. Modu horretan, irakasle baten kasuan, lehenik eta behin egin behar duena umea poesiaren mundura bultzatzea da, ondoren, sorturiko interes hori mantenduz, kuriositate sinple batean ez gelditzeko. Horrekin batera, kontziente izan beharko da haur bakoitza aurkitzen den momentuaz, ume bakoitzak tresna desberdinak behar izango baititu (Jean, 1992).

Etengabeko lana izango da irakaslearena, baina ez soilik umei laguntzeaz arduratzen lan propioa ere egin behar baitute. Irakasle gisa ezin izango dugu irakurzaletasuna sustatu guk geuk ere ez badugu irakurtzeko ohitura handiegirik. Badirudi lan erraza dela, hezitzaileak liburu gehiago irakurtzen hastea eta arazoa amaituko da. Baina nondik atera denbora?

Manu Lopez Gasenik (2006) dioen bezala, lan zaila eta pisutsua da irakaslearena; eduki kurrikularren eta programen derrigorrezko burutzeak ez diete Haur eta Gazte Literaturaren (HGL) inguruko ekintzak egiteko denborarik uzten, haurrak gero eta motibazio baxuagoa dute eta, gutxi izango balitz, gizartean ia baloratzen ez den lana dugu hezitzaileona. Horregatik, haurrekin lan egiterako garaian, kontuan hartu beharreko ezaugarriak ditugu hauek.

#### **4.4 Haur Poesia eta jolasa**

Poesiaren nondik norakoak ulertuta lan honetan garrantzitsua da, hurrengo atal batzuetan ikusiko dugun bezala, jolasari buruz hitz egitea. Umeekin lan egin behar dugun neurrian, jolasa tresnarik oinarritzkoena izango da eta, beraz, haurtzaroaren etapan suposatzen duena aintzat hartu beharko dugu.

Jolasa jarduera atsegingarria da, espontaneo, borondatezkoa eta askatasun osoz aukeratutakoa non, haurra libre sentitu behar den nahi duena egiteko. Betiere,

jolasaren arauak edota haien artean sorturikoak errespetatuz. Gainera, jolasa ez denez sortzen emaitza zehatz bat lortzeko, haurrak ez dio beldurra izango porrotari eta horrela, bete-betean sartuko da jolasean modu aktiboan. Horregatik, jolasterakoan, umeak integralki garatzen joango dira apurka-apurka (Bautista eta Lopez, 2002).

Aipaturiko ezaugarriengatik gaur egun Haur Hezkuntzan gehien erabiltzen den baliabidea dela esan genezake, garatzeko aukera ezin hobeak eskaintzen dizkielako haurrei. Izan ere, umeen eta helduen ikasteko erak oso desberdinak dira. Maria Montessoriren arabera, umeen garunak modu inkontzientean inguruko informazio gehiena xurgatzen baitute, modu azkarrean ikastea ahalbidetzen dienak (in Cabello, 2011). Horrela, jolasaren eta esperimentazioaren bitartez, rolak, pentsamenduak eta espresioak elkarbanatuz, umeek ikasi egiten dute (Padial, 2014).

Autoestimua eta autokontzeptua baloratzen, psikomotrizitate fina, hizkuntza, espresioa, komunikazioa garatzen, irudimena lantzen eta bakoitzak bere burua gehiago ezagutzen ikasiko du Maria Jose Cabello Salgueroren (2011) ustetan.

Bitzita osoan zehar hain garrantzitsuak izango diren ezaugarri horiek guztiak garatzeaz gain, jolasak inteligentziari ere bere fruituak emango dizkio, Jean Piaget filosofo eta psikologoak azaldu zuen bezala:

“El juego infantil es una actividad cultural que desarrolla la inteligencia. De esta forma, los juegos manipulativos, simbólicos y de reglas responden a los tres niveles de la estructura del pensamiento: sensoriomotor, representativo y reflexivo. Así pues, la cultura, aliada con la inteligencia, se comportan en el período inicial de la vida como formas lúdicas” (in Crespillo, 2010).

Arrazoi horiengatik, argi gelditzen da poesia lantzeko biderik hoberena jolasarena dela. Haurrak tradizionalki beti sartu baitu poesia jokoaren barruan, saltoak zein beso eta eskuekiko jokoak betidanik hitzaren lagun izan direlarik (Igerabide, 1994). Izan ere, Murtziako Unibertsitateko hizkuntza eta literaturaren didaktikako ikerketa taldeak esan bezala, behin poesia desmitifikatuta, jolas bihurtzen da eta horrela, dibertimendu (Lopez, Jerez eta Encabo, 2010).

Horiek horrela, jolasa eta poesia estuki lotuta egongo dira haurtzaro osoan zehar. Ana Pelegrinen (1993) aburuz, jolasa herritarren poesian txertatzen hasi zen, zuten alderdi bikoitzean; umeei bideraturiko ahozko tradizioko poesian eta poesia ez tradizionalean. Ikertzaile honen ustetan jolasa eta errimaren arteko garrantzia baina, ez da ahozko aspektu soilean zentratzen, keinuek eta sonoritateak ere bere lekua baitaukate.

Horregatik, poesiak joko dramatikoarekin antzekotasuna duela esan ohi da. Keinuek eta erritmo korporalek testuaren esanahia azpimarratzen, zabaltzen eta ordezkatzeko baitute kasu askotan (Pelegrin, 1993).

#### **4.5 Curriculumaren azterketa**

Poesia eta jolasa hain loturik egoteak, EAEko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak (2016) zehaztutako Haur Hezkuntzako Curriculumean azaltzen diren zenbait gaitasun eta eduki garatzea dakar. Alde batetik, norberaren nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremuan eta, bestetik, nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eremuan, adierazpenarenean hain zuzen.

Lehenengo eremuari dagokionez, umeei haien beharrak, sentimenduak eta emozioak identifikatzeaz gain adierazteko gaitasuna lortuko dute poesiaren laguntzaz eta, horrela, haien ongizate emozionala garatzen joango da.

Poesiaren laguntzaz diogunean, jolasari buruz ere mintzo gara, umeei honen bitartez lortuko baitute ingurunea arakatzea eta segurtasun afektiboa finkatzea horrela, eguneroko bizitzako egoerez gozatzeko zein harremanak izateko. Jolasa, gozatzeko eta ingurukoekin harreman orekatuak izateko bidetzat ulertuta. Ibilbide horretan, jolaseko arauak ulertuz eta onartuz, ikasiko dute arauak beharrezkoak direla.

Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eremuan ere, literaturak eta zehazki Haur Poesiak hartzen duen lekua handia da. Honek, ideiak eta sentimenduak adierazteko asmoz, komunikatzeko, irudikatze, ikasteko eta gozatzeko tresnatzat balio duelako. Haur Poesiaren kasuan, ahozko komunikazioa izango da umeei gehien erabiliko dutena. Izan ere, Eguneroko testuinguruetan, informazioari, beharrei, emozioei eta nahiei dagozkien ahozko mezuak ekoiztea lortuko dute, norberaren portaera eta elkarbizitza erregulatuz.

Poesiaren eta jolasaren bitartez, espazioaren, erritmoaren eta denboraren lehen nozioak finkatzen hasiko dira haurrak, soinu eta erritmo errazak ekoiztuz, melodiak interpretatuz edo bestelako ekoizpen batzuen akonpainamendua eginez. Horretarako, mugimenduaren eta soinuaren arteko, eta hitzaren eta soinuaren arteko koordinazioa, jolasak, abestiak, errimak eta ipuinak abiapuntutzat hartuko dira.

Komunikatzeko hitzez gain keinuak ere erabili ohi ditugu, horregatik, garrantzitsua izango da gorputza eta mugimenduak era bateko edo besteko ezaugarriak dituzten beste pertsona, espazio, denbora eta objektu batzuetara doitzea.

Era berean, inguruko pertsona horien adierazpen, azalpen eta antzezenak aztertzen eta horietatik ere ikasten ikasiko duten heinean.

Bizi garen egungo gizartea gero eta garatuagoa dagoen informazioaren gizartea dela kontuan hartuta, ezinbestekotzat joko da teknologiako tresnak erabiltzen hastea eta tresna horiek komunikatzeko duten gaitasuna aintzat hartzea. Modu horretan, ikus-entzunezko bitartekoetatik igortzen diren mezuak interpretatzen hasiko dira eta haien bidez mezuak igortzeari ekin ahal izango diote. Izan ere, irakaskuntza eta komunikazioa errazteko tresna oso erabilgarriak dira.

Laburbilduz, azaldu ditugun gaitasun eta edukien arabera, esan genezake curriculumak poesia bultzatzen duela. Aipaturiko dokumentu ofizialean zehazten den bezala poesia guztiz onuragarria izango da haurrentzat, bai ahozko komunikazioa lantzeko, bai haien identitate eraikitzen eta ezagutzen joateko eta baita jolasaren bidez bakoitzak bere sentimendu, emozio eta nahiak ulertu, ezagutu eta adierazteko ere.

## **5. POESIAREN MUNDUA: Sekretuen haitzuloa**

### **5.1 Deskribapena eta justifikazioa**

Hurtzaroa gizakion ikaskuntza prozesuan etaparik garrantzitsuena izanik, orotariko kontzeptu, jarrera zein eredu ezberdinak ezagutzeko garai ezin hobea izango da, non hezkuntzak izugarritzko garrantzia izango duen. Denboraldi honetan ezartzen dira gizabanakoaren garapenaren oinarriak eta, nola ez, gizartearenak (Guzmán eta Guevara, 2010). Hortaz, poesiarekin lanean hasteko hurtzaroa momentu paregabea litzateke, pertsonok gehien ikasten dugun aldia baita. Aurreko puntuetan aipatu bezala, ezinbestekoa izango zaigu jolasa, jolasik gabe ez baitago dibertimendurik eta dibertimendurik gabe ez baitago sakoneko ikasketa egokirik.

Illo horretatik, jolasaren bitartez, poesiak benetan suposatzen duena ulertzera helduko dira haurrak. Orain arte eta oraindik ere poesiaren baitan sortzen den kontzeptua deseraikitzen, hain zuzen. Izan ere, poesia errima, metrika eta estruktura jakin bateko testuak direla pentsatzen dutenak ez dira gutxi. Eta bai, hori ere bada. Baina askoz ere haratago doa.

Esan genezake hizkuntzarekin jolasteko tresna bikaina izateaz gain, mundua ulertzeko eta bizitzeko modua dela, begiak zabalik, amesten laguntzen diguna. Hortaz, ondorengo puntuetan azalduko dudana proposamenak, "Sekretuen haitzuloa poesiak benetan dituen zentzua eta mamia estimatzera eramango gaitu, ibilbide guztiko zutabe nagusiak poesia bera eta jolasa izango direlarik. Batak bestea sortzen duelako, batak bestea behar duelako.

Modu horretan, txikienak poesiaren munduan murgilduko dira, poesia beste edozein jolas bezain dibertigarria izan daitekeela ulertuz eta, are gehiago, biziz. Poesiak, jarduerak eta eginbeharrak plazer bilakatuko ditu umeentzat, hitzek, formek, kantuek eta jolasek sortzen duten mundura salto eginez.

Umeak ez dira parte hartuko duten bakarrak izango, nahiz eta protagonistak bai, poesiaren bitartez hezitzaileek ere haien paper garrantzitsua izango dutelako. Proposatutako lana edozein eskolatan aurrera eramateko egina dago, horregatik, lan honetan protagonistak eskola bakoitzeko ikasleak izango dira, betiere, bertako irakasleak eta egitasmoaren dinamizatzailak kontuan hartuz.

Proposamena hurrei bideratuta egon arren aipaturiko irakasle eta dinamizatzailak ere oso garrantzitsuak izango dira, rol konkretuak jarraituko baitituzte lana aurrera eraman ahal izateko. Alde batetik, dinamizatzailak, izenak ondo dioen moduan, lan guztiaren bideratzaile izango dira, hau da, jarduerak aurretik prestatuko

dituzte, ahalik eta material gehiena bilatuko dute, jarduerak azalduko dituzte, etab. Beste alde batetik, irakasleak, dinamizatzailerekin batera haurrentzako beste erreferente bat izan arren, haien eginbehar desberdinak izango dituzte: haurrak lasaitu, egingo den proposamena aurretik azaldu, jardueretan zehar hurrei lagundu eta dinamizatzailerekin egin beharrekoari buruz hitz egin eta aldaketaren bat egonez gero adostu. Irakasle eta dinamizatzailereana izango da haurrak espazio batetik eta jarduera batetik bestera gidatzeko zein azaltzeko lana.

Poesiak badauzka bere bide malkartsuak ere, zailtasun gabeko ibilbideak ez baitira ametsetan ere existitzen. Horregatik, korrituko dugun bidean zehar, adibidez irakasleek kasuan, zailtasunak aurkitu ahal izango ditugu. Umeengan irakurzaletasuna bultzatu nahi duten berberak ez dute irakurtzen eta. Manu Lopez Gasenik (2006, 54-55.or.) esan bezala:

“Baina arazo hori ezin da mugatu norbanakoen arlora. Maisu-maistra eta irakasleen kolektiboak oso baldintza larriean egin behar du lan: urte gutxitan behin, irakaskuntza-kurrikuloen erreformaren bati aurre egin behar izaten diote; eduki kurrikularrek eta programak derrigorrez bete behar izateak apenas uzten dute Haur eta Gazte Literaturaren inguruko ekintzak egiteko denborarik; ikasgeletara iristen diren ikasleek gero eta motibazio gutxiago dute eta, ondorioz, ikasgelak gero eta gatazkatsuagoak dira; eta, aurreko guztia gutxi balitz, gizartearen aldetik oso balorazio txikia jasotzen dute maisu-maistrek eta irakasleek.”

Horren harira, lehenengo pausoa poesia modu aktiboan eta guztien artean lan eginez eskola ezberdinetan txertatzea izango da, lehenik eta behin, kontzeptua ulertuz, ondoren, hurrei transmititu ahal izateko. “*Sekretuen haitzuloa*” Berritzeguneak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eskaintako tailerra izango da, Haur Hezkuntzako 5 urteko umeentzat bideratua egongo dena. Horregatik, zerbitzua eskatzen duten ikastetxeetan burutuko da proposamena, tokian tokiko irakaslearen laguntzaz.

Poesia lantzeko eta umeek bizi ahal izateko, ikasitakoa hamabi saioen bidez martxan jarriko da. Betiere, jolasean zentratuz. Izan ere, jolasa gizakiok gauzatzen ditugun jardueretatik atsegingarrienetariko bat da, Bhuler, Chateau, Erikson eta Piaget bezalako adituek zioten bezala, haurtzaroan ezinbestekoa dena (in Padial, 2014).

Esan genezake jolasa dibertimendu eta manipulazioa baino askoz haratago doala, Maite Garaigordobilen psikologoaren aburuz, jolasak pentsamendua garatzeko gaitasunak estimulatzeaz gain, ikaskuntza zonalde potentzialak sortzen dituelako. Baina ez hori bakarrik, jolasak jolasa ez den beste gauza askorekin ere erlazioa

duelako; hain zuzen, sormenarekin, arazoan ebazpenekin, hizkuntzaren garapenarekin eta beste fenomeno kognitibo eta sozialekin (in Del Toro, 2013).

Jolasaren bitartez orduan, haurrek hiru aspektu landuko dituzte, Cañequek Freud hitzak berreskuratzean azaltzen dituenak; bata, plazeraren printzipioa, bestea, pasibotasunetik aktibotasunerako transformazioa eta azkenik, errepikatzearen legearena Salvador Padiá Díazek (2014) aipatu bezala.

Gure kasuan jolasa hizkuntzarekin eskutik joango denez, argi izan behar dugu haurrari, dituen gaitasun linguistikoak garatzea ahalbidetuko diona ez dela hizkuntzaren ikaskuntza ezta arrazoitzeko modua izango, hizkuntzarekin eta pentsamenduarekin jolasteko izango dituen aukerak baizik (Bruner, 1986 in Garaigordobil, 2005: 22).

Esandako guztia kontuan hartuta eta proposatuko dudan lanean jolasten dibertitu, gozatu eta ikasi egingo dugulakoan, *“Sekretuen haitzuloa”* deritzon proposamen didaktikoa sortu dut. Jolas, ariketa, ikuskizun, poesiaz eta magiaz beteriko lekua.

## **5.2 Azalpena eta ikuspegi kurrikularra**

*“Sekretuen haitzuloa”* poesia sustatzea eta harekin jolastea xede duen espazioa da. Lehen esan bezala, tailerra eskaintzen duena Berritzegunea eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila izan arren, proposamena aurrera eramango dutenak bi dinamizatzailerak izango dira. Horiek, eskolaz eskola magiaz beteriko poesiaren munduan murgiltzen joango dira haurrak. Horregatik, *“Sekretuen haitzuloa”* edozein ikastetxetan abiarazteko prestatua dagoela esan genezake; betiere, tokian tokiko ezaugarriak, baldintzak eta testuingurua kontuan harturik.

Proposamena edozein ikastetxetan aurrera eraman ahal izango dela esatean kontuan hartu behar ditugu zenbait kontzeptu, espazioarena esate baterako. Aisialdi taldearen helburua espazio bat sortu, umeei erakustea eta bertan jolasten uztea izanik, eskolak gutxienez leku nahiko handi eta zabal bat utzi beharko lieke. Horrez gain, ondorengo saioaren batean gela egonkorra ere erabiliko denez, aldeztatik txoko txiki bat libre utzi beharko lukete. Hala ere, eskola bakoitzak bere zailtasunak eta mugak dituela jakina denez, aisialdi taldea emandako espazioetara moldatzen ahaleginduko da.

Bestalde, ordutegiaren kontuarekin, *“Sekretuen haitzuloa”* ez denez ikastetxe zehatz baten aurrera eramango gutxi gorabeherako ordu batzuk proposatzen dira,



espazioaren eskariarekin batera eskertuko liratekeenak (Ikus 1.eranskina: “*Sekretuen haitzuloaren*” egutegia). Izan ere, leku eta ordu jakin batzuk asko aberastu dezakete burutu nahi den proposamena.

Aurrerago aipatu bezala, proposamen hau hamabi saiok osatuko dute. Ondorengo lerroetan, tailerraren edo proposamenaren ideia orokorra ulertzeko asmotan saio bakoitzaren nondik norakoei buruz hitz egingo da.

Laburki azaltzeko; lehenengo saioan haurrak “*Sekretuen haitzuloa*” deituriko ikuskizun edo antzezlan baten ikusle izango dira, bigarren eta hirugarren saioan ikuskizunean aurkeztuko den jolasez beteriko ibilbidea burutuko dute, laugarrenean, haien fantasiarako espazioaz arituko dira (horri buruz hitz eginez, marraztuz, bertako arauak finkatuz...) eta bosgarren saiotik aurrera, haien espazio propioa sortzen hasiko dira gela egonkorrean bertan. Baina espazio propio bat sortzea ez denez dekorazio hutsean zentratzen sortuko duten espazioa ondo antolatzeke eta aurrera eramateko beste lau saio (6. 7. 8. eta 9. saioak izango direnak) burutuko dira ariketa ezberdinekin. Behin, zortzi saioak bukatuta, ikasitako eta sorturiko guztia, hamargarren jardueran, prozesu guztian zehar egindako argazkiak batuko dituzte bideo bat sortzeko. Azkenik, hamaikagarren eta hamabigarren saioetan, bost astetan zehar egindakoa Haur Hezkuntzako beste ikasleei erakutsi eta azalduko diete gela museo bat bezala apainduz eta aurretik eginiko bideoa erakutsiz.

“*Sekretuen haitzuloari*” hasiera emango diotenak tailerraren dinamizatzailerak izango dira, Berritzeguneak eta Eusko Jaurlaritzak aurretik adostutakoak. Beraz, edozein saio edota jarduera egiterako orduan EAEko Haur Hezkuntzako Curriculum Dekretua (OCD) (EAEko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila, 2016) aintzat hartua izango da, proposamenari ikuspegi kurrikularra emateko asmoz. Hori dela eta, eskola orduetan egingo litzateke, aurretik aipaturiko Curriculumeko eduki eta gaitasunak landuko liratekeelako.

Ildo horretatik, burutuko diren saio guztietako jarduera eta eginbeharrak Curriculumeko oinarritzko zehar-konpetentzia eta konpetentzia espezifikoko konkretu batzuetan oinarritzeaz gain, dokumentuko esperientzia eremu bakoitzeko gaitasun zein edukiak eta ebaluazioa ere ezinbesteko zutabeak izango dira. Horiek hasieratik argi izateko asmotan, tailerra egin baino lehen ikastetxe bakoitzari hari buruzko informazioa bidaliko zaio eta curriculumari dagokion atal guztia ere. Modu horretan, bertaratu baino lehen aurrera eraman nahi diren jarduerak eta horiek burutzeko bultzatuko diren gaitasun zein edukiak ezagutzera emango zaizkie.

Bizitzako esparru guztietan haurrek arazoak ebazteko gai izateko asmoz proposamen didaktiko hau hiru konpetentzia garrantzitsutan zentratuko da: Norbera izaten ikasteko konpetentzian, ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzian eta hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzian, hain zuzen. Etengabe sormenarekin jolastuko dute, haien gaitasun, zailtasun eta gustuak gero eta gehiago ezagutzen. Modu horretan, norberaren burua ezagutzeko pauso garrantzitsuak emango dituzte, norbera izaten ikasiz. Bigarrenik, jarduera ezberdinetako erantzunak eta eginbeharrak aurrera eramaterako orduan haurren lana pentsatzea izango da, loturak egitea eta haien esperientzien arabera bakoitza bere bidetik helmugara heltzea. Hirugarren konpetentzia, guztietatik presenteena izango da, umeek ariketa guztien ibilbidean hitz egin, keinuekin adierazi eta komunikatzeko modu ezberdinak erabili behar izango baitituzte.

Hiru zehar konpetentzia horiez gain, aipatzekoak dira ere zeharkako modu batean landuko diren konpetentzia espezifikokoak. Kasu honetan, nahiz eta bakoitza lantzeko ordutegi finkorik ez izan gehienak lantzen direlako. Hizkuntza eta literatura konpetentzia adibidez, asko ikusiko dugu tailerlean, poesiaz, kantuz zein errimez beterik baitago. Arterako konpetentzia ere aipatzekoa litzateke, sormenaren laguntzaz haurrek adierazpen artistiko desberdinak egin eta ikusiko dituztelako: marrazkiak, antzezpenak, eskulanak etab. Beste konpetentzia bat soziala litzateke, haurrek egingo dituzten jarduera asko taldean egitekoak izango direlako. Modu horretan, gizarteko jarrera eta arau batzuk ezagutzen eta erabiltzen hasiko dira. Azkenik, gaur egun hain garrantzitsua den teknologiarako konpetentzia ere landuko da proposamenean, bizi garen informazioaren gizartean ezinbestekoa izango baitute gailu teknologikoak erabiltzen ikasten hastea. Horregatik, ariketa ezberdinetan gailu elektronikoak presente egoteaz gain, beste batzuetan haurrek erabili egin izango dituzte.

Esan genezake aipaturiko konpetentzia guztiak modu orokorrean beteko direla, baina modu zehatzago batean azaltzeko EAEko Haur Hezkuntzako Curriculumeko bi esperientzia eremuko (nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremuan eta nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua) gaitasun edota helburuetan zentratuko gara.

Lehenengo eremuari dagokionez, "*Sekretuen haitzuloarekin*" hiru izango dira lortu nahiko diren gaitasunak. Lehenik eta behin, gorputza kontrolatzeko bidea urratzea (1). Hau da, haien mugimenduen tonua, oreka eta koordinazioa kontrolatzen joatea, dituen muga eta ahalmenak deskubritzeko. Bigarren gaitasuna, ongizate emozionalari dagozkion jarrerak lantzearena izango da, mugimenduak, jolasa zein arakatzeko

jardunean aritzea (2). Eta, hirugarrena, gailu teknologikoak erabiltzen hastea izango da, informazioa eskuratzeko eta, nola ez, komunikazio bide berri bat ezagutzeko (3).

Bigarren eremuari dagokionez, bi dira gehienbat lortu nahi izango diren gaitasunak. Alde batetik, bakoitzak zer emozio dituen ezagutzea eta horrela horiek guztiak komunikazio-asmoz adieraztea (4) eta, beste aldetik, gainerako haurren eta helduen mezuak ulertzea. Jardueretan zehar haurrak etengabe komunikatzen arituko dira; hitzez, keinuz eta batez ere ahoz (5). Baina aurrerago aipatu bezala, poesia lantzeko ezinbestekoa izango da entzutea. Horregatik, haien ikaskide eta irakasle direnen mezuak ulertzeko beharrezkoa izango dute entzutea.

Azaldutako gaitasunak lortzeko, EAEko Haur Hezkuntzako Curriculumeko eduki batzuk ere beharrezkoak izango dira, gaitasunen antzera bi eremuetan banatzen direnak eta horiekin guztiz loturik daudenak. Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremuan hiru eduki nabarmenduko dira: errealitatea arakatzeko zentzumen zein gorputza erabiltzea, ingurunea jolasaren bidez arakatzeta eta eguneroko bizitza antolatzen duten arau kolektiboak betetzea. Izan ere, "*Sekretuen haitzuloaren*" tailerrean jolasa guztiaren oinarri izango da eta jolasa ezin izango da eman arau batzuk ez badira finkatzen, eta ondoren, betetzen.

Bigarren eremuari dagokionez, nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremuari, lau edukitan zentratuko gara: Haurrek eguneroko bizitzako egoeretan komunikazio-xedeak ulertzea, ahoz adierazitako testuak (ipuinak, abestiak, kontakizunak, esaera zaharrak, atsotitzak, etab.) ulertzea, dramatizazio eta imitazioko jolasetan (dantza, gorputz-adierazpena, etab.) parte hartzea eta arte adierazpenen bidez komunikatzea.

Proposamenarekin erabat loturik dauden edukiak, gaitasunak eta konpetentziak azalduta, ibilbidearen parte garrantzitsuenetarikoa batean zentratu beharko ginateke, ebaluazioan. Proposamen honetan ebaluazioa egingo dutenak tailerraren dinamizatzaileak, bertan egondako irakasleak eta modu erraz batean haurrek ere egingo dute.

Irakasleak, behaketa koadernoak, haurren ahozko zein mota guztietako adierazpen eta haien jarrerak ebaluazio tresna bezala erabiliz, haurrak modu jarraian ebaluatuko ditu. Hau da, egindako ibilbide edota prozesu osoan zentratuko da eta ez soilik amaierako ikasketan. Horrez gain, tailerra ebaluatzeko asmotan ere irakasleak ebaluazio fitxa bat bete beharko du (Ikus 2.eranskina 2.1 Irakasleak bete beharreko tailerraren inguruko fitxa). Haurrek ere haien lana eta bizitako esperientzia berri guztiak

ebaluatzeko aukera izango dute, burutuko dituzten azken bi jarduerak ebaluazio jarduerak direlako. Egindako guztia beste ikaskide batzuei azaltzea eta erabilitako material desberdinekin erakusketa bat antolatzean egindako ibilbide guztia modu gradualean ikusi ahal izango dute. Dinamizatzailleak, aldiz, esan genezake ez dituztela umeak ebaluatuko, baizik eta tailerra bera. Baina horretarako ere ebaluazio irizpideak hartu beharko dituzte kontuan, umeen prozesua nolakoa izan den jakiteko eta horrela, ondoren, tailerra ondo edo gaizki irten den ulertzeko. Beraz, nahiz eta irakasleak egin beharko lukeen umeen inguruko ebaluazio sakona ez egin pixka bat gaineratik begiratu beharko du ondoren tailerra ebaluatzeko fitxa bete ahal izateko (Ikus 2.eranskina 2.2 Dinamizatzailleek tailerra ebaluatzeko bete beharreko fitxa).

Proposamenean parte hartzen duten eragile guztiek ebaluatuko duten arren gu gehienbat irakaslean zentratuko gara, bera izango baita aipaturiko gaitasun edo helburuak lortu diren jakiteko ebaluazio irizpide batzuk jarraituko dituen. Hasieran esan bezala, curriculumari dagozkion dokumentuak irakasleari bidaliko zaizkio, hau da, dinamizatzailleak proposatutakoak (gaitasun, eduki, ebaluazioa). Hala ere, irakasle bakoitza libre izango da nahi duen moduan ebaluatzeko eta irizpide zein tresnak erabiltzeko.

Hori horrela izanda ere tailer honek proposatzen dituen ebaluazio irizpideak gaitasunekin bat etorriko lirateke (Ikus 1.eranskina: Ebaluazioa).

### 5.3 Programazioa

Egitasmoaren programazioari helduz, proposamena eskola desberdinetan aurrera eramango den arren, ordutegi batean praktikan jartzeko sei asteko proposamen didaktikoa izango da. Hots, aste bakoitzeko bi saio burutuko dira ikastetxeetako 5 urteko hurrekin. Hori horrela, lehenengoan *Tantaz tanta* (Ikuskizuna) eta *1.Ibilbidea* saioak aurrera eramango dira, bigarrenean, *2.Ibilbidearekin* jarraituko dute, *Txipristinaren tantekin* batera (Asanblada), hirugarrenean, *Fantasiatzko mundua* eta *Nor da zer? Zer da nor?*, laugarrenean, *Abezedariora* eta *Xomorropoemak*, bosgarrenean, *Onomatopeiak* eta *Atzerako bidaiak* eta, seigarrenena, aldiz, *Museoa*, lehenengo Haur Hezkuntzakoentzat eta ondoren gurasoentzat (Ikus 3.eranskina: “*Sekretuen haitzuloaren*” egutegia). Hortaz, sei aste horietan zehar, astelehen eta asteazkenetan hurrek poesiaren munduan murgiltzeko aukera izango dute, hizkuntzarekin dantzatzuz, magian sinetsiz eta fantasiatzuz.

Sei astegun horietan jarraituko den ordutegia hurrengoak izango da; astelehenetako saio batzuetan, goizeko 9:00etatik 10:45ak arte eta beste astelehen batzuetan 10:00etatik 10:45ak arte, asteazkenetakoa, berriz, arratsaldeko 14:30etatik 16:00ak arte, hots, eskola orduak amaitu arte. Hasiera batetik, ordutegia zein egutegia finkatuta egon arren guztiz moldagarria izan daitezke ikastetxe bakoitzaren beharrian, ordutegi eta zailtasunen arabera.

Kasu honetan, saioak astearen lehen erdian burutuko dira, astelehena izanik eta asteburu osoan zehar eskolan egon gabe, umeak gogotsu etortzen direlako gelara. Era berea, asteazkenean, ostirala heltzeko oraindik bi egun falta direnez eta, beraz, hurrengo egunak gogotsu hartzeko, azken ordu eta erdian ezarri dira sei asteetako saioak. Gainera, azken orduak direnez hurrek eginbehar guztietatik deskantsu bat hartzeko aukera izango dute.

Saioen iraupenari dagokionez, baliteke batzuetan gehiago irautea eta beste batzuetan, berriz, gutxiago. Hala ere, saio bakoitzaren iraupen estandarra edo behintzat estimatzen dena ondorengoa izango litzateke; lehenengo saioa 45 minutukoa, bigarrena ere 45 minutukoa, hirugarrena 1 ordu eta 15 minutukoa, laugarrena 10 minutukoa, bosgarrena 1 ordu eta erdikoa, seigarrena 30/45 minutu bitartekoa, zazpigarrena 1 ordu eta 15 minutukoa, zortzigarrena ordubetekoa, bederatzigarrena 45 minutukoa, hamargarrena ordubetekoa, hamaikagarrena 1 ordu eta 15 minutukoa eta azkena, hamabigarrena, ordubetekoa. “*Sekretuaren haitzuloaren*” egutegian saioen iraupena pixka bat zabaltzen da, lehen esan bezala, gehiago iraun dezaketelako.

Horrela, hamabi saioetako ordutegiak eta egunak jarraituz lehenengo biak, posible bada, eskolak eskainitako espazio zabal batean aurrera eramango dira, psikomotrizitate gelan adibidez eta beste guztiak gela egonkorrean edota patioan. Modu horretan, hasieratik lortu nahi izan den helburua, poesiarekin bizitzeko espazio bat sortzea, eskolan denbora gehien igarotzen duten ikasgelan bertan sortzea ahalbidetuko da. Ordutegia jarraituz eta asteleheneko saiotik asteazkenekora egun bateko tartearekin, umeak ikuskizunean murgiltzen laguntzen baditugu, erraza bezain dibertigarria izango da haurrentzat hamabi saioak osatzen duten proposamen didaktikoaren ibilbidea gogotsu egitea.

Gainera, hurrek burutuko eta biziko dituzten ariketak eta orokorrean saioak ez dira guztiak berdinak izango. Orotara, mota askotariko jolasak aurkituko dituzte; lasai egotekoak, mugitzekoak, ikustekoak, parte hartzekoak, pentsatzekoak, sortzekoak e.a. Horregatik, horiek guztiak modu argian ulertzeko eta imajinatu ahal izateko hurrengo orrietan saio bakoitzeko egingo den guztiaren taula bat aurkeztuko da jolas/ikuskizun edota eginbeharrekoen datuekin; izena, iraupena, erabiliko den materiala, espazioa, partaide kopurua, jolas mota eta nola ez, guztiaren azalpena (Ikus 5.4 “*Sekretuen haitzuloa*” puntua).

Aurrerago azalduko diren jolas horiek, nahiz eta zuzenean hurrei bideraturik egon, irakasleak beti presente egongo dira bertan. Umeen erreferente diren heinean oso garrantzitsua iruditzen zait haurrentzat hain garrantzitsua den momentu batean ere haiekin egotea, laguntzen. Modu horretan, haien arteko harremana sendotuko liratekeelako.

Irakasle-ikasleen arteko elkarrekintza hasieratik sustatuz, irakasleak behin saioak bukatuta izango duen lana erraztuko du. Gela egonkorrean bertan umeek poesiarentzako mundu txiki bat sortuko dutenez ezinbestekoa izango da honi aurrerapena ematea. Hortaz, dinamizatzaileak lanean jarraitzeko ariketa eta material desberdinak emango dizkieten arren, irakaslea izan beharko da umeekin fantasiaz gozatzen jarraitu beharko duena, nahiz eta harekin beti kontaktuan jarraitu.

## 5.4 Sekretuen haizuloa

### 5.4.1 1.Saioa

<b>TANTAZ TANTA</b>			
AZALPENA			
<p>Bi dinamizatzailleek ikuskizun bat eskainiko die haurrei eta horiek ere parte hartuko dute:</p> <p>1) Ikuskizuna: Badira bi neskato, egunero eskolatik irten bezain pronto kostaldean dagoen herri abandonatu batera joaten direnak. Bertan gauza eta leku liluragarriak aurkitzen dituzte eta egunak bertan bizi izandako jendearen istorio fantastikoak imajinatzen igarotzen dituzte. Baina egun batean, zirimiria zela eta bertatik korrika alde egin zuten. Hurrengo egunean, bertara joan eta euriak sortutako putzuetan irudiak ikusi ahal zirela konturatu ziren, familia eta jende ezberdinen irudiak. Horrela, egunetik egunera, euria gero eta gogotsuago zebilen. Hasieran zirimiria bat zena euri zaparrada bihurtu zen eta zaparrada ekaitz eta, nola ez, ekaitza elurte. Horrela, ura gorantz joan zen ahala herria desagertzen joan zen. Geroztik, neskatoak ezin izan ziren bertan jolastu, ordea, ondoko mendi magalean gelditzen ziren euriak sorturiko aingura eta ur gazia batzerakoan sortutako itsasoari begira. Imajinatzen zituzten istorioak jada ez ziren fikziozkoak, goizero olatuek herri txiki haren istorioak xuxurlatzen baitzien, neskatoak haien tutu magikoak (Astobieta, Basterretxea eta Ibarretxe, 2016) belarran jarrita adi-adi entzuten zuten bitartean.</p> <p>2) Dinamizatzailleek istorio desberdinak imajinatzerako orduan galderak egingo dituzte adb: Zer inguratuko zuen hesi honek lehenago? e.a. Horrela eta beste momentu batzuetan abestuz umeak elkartrukean arituko dira ikuskizunean bertan.</p> <p>3) Antzezpenaren ondoren umeekin batu eta horri buruz hitz egingo dute; gustatu zaien, ze istorio gehiago imajinatu dituzten haiek e.a.</p>			
<b>MATERIALA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Espazioa dekoratzeko materiala: mural papera, oihalak, margoak, zelaia, ordenagailua, proiektorea, soinuak (euri hotsa e.a.), argiztapena,</li> <li>- Aulkiak edo mantak (haurrak jartzeko)</li> </ul>		
IRAUPENA	ESPAZIOA	KOPURUA	MOTA
45 MIN	PSIKOMOTRIZITATE GELA	IKASTETXE BAKOITZEKO IKASLE TALDEA	IKUSKIZUNA

## 5.4.2 2.Saioa

### UR: ZIRIMIRI EDO ZAPARRADA? (1.Ibilbidea)

#### AZALPENA

1) Hurrek, *Ur: erori nahi ez zuen tanta* (Euriaren liburua) liburuako bi olerki entzungo dituzte.

#### Euriaren sokak

Euriak zerua  
goitik behera dakar,  
milioika soketatik tiraka.  
Egun urdinetan,  
eten egiten dira sokak  
eta zerua *dzup!* gora itzultzen da  
irribarre zabalez.

#### Euria igarotzean

Nora ote doa euria  
kalez kale?  
ondotik igarotzean,  
begirada garbitzen dit.  
Begiak kliskatzen ditut  
eta zipriztin bat  
bihotzera erortzen zait.

2) Lehenengo olerkia entzun ondoren liburuak dakartzan lamina eta marrazkiak erabiliz sekuentzia edo istorio desberdinak sortuko dituzte eta gauza bera bigarren olerkiarekin.

3) Istorio, sekuentzia edo irudi bat behin sortuta bakoitzak izenburua jarri beharko dio berea den kontakizun horri eta beste kideei erakutsi.

4) Bakarka, binaka zein taldeka egin ahal izango da ariketa eta ondoren nahi duenak berea erakutsi eta azaltzeko aukera izango du.

MATERIALA	<p>- Juan Kruz Igerabideren <i>Ur: Euriaren liburuaren</i> kaxa, barruan dituen material guztiekin: CDa, <i>Ur: erori nahi ez zuen tanta</i> deituriko liburuxka, jolaserako gonbita, laminak eta marrazkiak (Ikus 4.eranskina “Ur: Euriaren liburua”)</p> <p>- Boligrafoak, arkatzak, orri zuriak eta <i>Blu Tack</i> (irudiak horman itsasteko) eta argazki kamera (espazioaren eta umeen elkarrekintzaren argazkiak egiteko).</p>		
IRAUPENA	ESPAZIOA	KOPURUA	MOTA
20 minutu	PSIKOMOTRIZITATE GELA	IKASTETXE BAKOITZEKO IKASLE TALDEA	IBILBIDEA



## ISLADEN BEGIRADA (1.Ibilbidea)

### AZALPENA

1) Haurrak lauko taldetan banatuko dira eta talde bakoitzari idazle ezagun baten olerki bat emango zaio. Hauek taldekideen aurrean jarri eta mimikaz, musikatua bada isilean kantatuz, marraztuz edo gorputza mugituz olerkia deskribatu beharko dute.

2) Ikusten ari direnak hamar olerki izango dituzte aurrean beraz, lauко taldeak egindakoaren arabera bertatik bat aukeratu beharko dute.

3) Horrela, lau taldeak, bakoitzak bere erara; hitzez hitz, egoera deskribatuz zein gaia antzeztuz olerkiak besteen aurrean antzeztuko dituzte eta ondoren beste ikaskideena asmatu beharko dituzte.

#### **Euri tanta**

Ni euri tanta banintz  
egingo nuke zure sudurrean txirrist  
lurrera erortzean salto  
eta hodeietara joango nintzateke berriz

#### **Marigorringo**

Marigorringo  
Marigorringo  
egunak egingo  
gauak desegingo

#### **Negua**

Kanta kanta  
txantxangorri  
kanta kanta  
gorri gorri:  
negua da etorri

#### **Izarrak**

Egunez lo  
gauetz argi, ilunpeko begi.  
Egunez lo  
gauetz diz-diz, zerua bete da begiz.  
Goizean lotara berriz.

#### **Pinpilinpauxa**

Pinpilinpauxa, tximirrika  
pitxilikari, mitxirrika  
maribihurri, mariapain  
lilia dago zure zain.  
Pinpilinpauxa, tximirrika  
pitxilikari, mitxirrika  
lilia malkotan dago,  
joan zaitez azkar hegaka!

#### **Bene-benetan**

- Bene-benetan?  
- Katua eta sagua berbetan.  
- Egi-egia?  
- Saguak katuaren belarrietan habia.  
- Serio-serio?  
- Katuak saguari musu eman dio

## AZALPENA

### **Musu**

Aza  
baba  
Pepe  
te  
lili  
polo  
musu  
truk  
musu  
truk  
eman  
musu  
zuk,  
zuk!

### **Loreak txoriari**

Loreak txoriari:  
"Aska nazazu,  
Lurretik askatu,  
Zurekin mundua  
Nahi dut ezagutu"  
Txoriak hegan  
Txio-txioka:  
"Eteten badituz zure sustraiak,  
Libre izango zara,  
Baina hilik, egarriz itota".  
"Agur, txoria,  
Baina tarteka etorri,  
Eta emadazu  
Munduko berri."

### **Isil-isilik**

Isil-isilik  
Harri leunen gainean,  
itsasora doa  
ibai gardena.  
Horrelaxe dator niregana  
maitatzen nauena

### **Asunak**

Egunsentian  
asunak  
bide ertzean  
mehatxuka.  
Ilunsentian  
mozkorra etxera bueltan  
haztamuka.

## MATERIALA

- Erabilitako olerkiak eta dagozkien liburuak:
  - Joxean Ormazabalen olerkiak (Euri tanta eta isil-isilik)
  - Pello añorgaren *Jiran-biran* liburua (Marigorringo, musu eta negua)
  - Antton Kazabonen *Errekak su* (Izarrak) eta *Kilikolore* (Loreak txoriari) liburuak
  - Xabier Olasoren *Pupuan Trapua* (Pinpilinpauza) eta *Tximeletrak* (Asunak) liburua
  - Anjel Iertxundiren *Aizak eta aizan elkarrekin dantzan* (Benebenetan) liburua
- Mural papera, errotuladoreak, argazki kamera eta koloretako kartulinak zein forratzeko papera (10 olerkiak apaintzeko).

IRAUPENA

ESPAZIOA

KOPURUA

MOTA

25 minutu

PSIKOMOTRIZITATE  
GELA

4KO TALDEAK

IBILBIDEA

### 5.4.3 3.Saioa

<b>TANTA XUXURLATUA (2.Ibilbidea)</b>												
<b>AZALPENA</b>												
<p>1) Umeak bi taldetan banatuko dira; lehenengo erdia hainbeste eurik sorturiko ainguraren alde batean kokatuko dira eta beste erdia, aldiz, beste ertzean.</p> <p>2) Kokatuta daudela, bakoitzak bere tutu magikoa fabrikatuko du istorio amaieran agertu denaren antzekoa.</p> <p>3) Ertz bakoitzean zenbait atsotitz ezagunen zati batzuk ageriko dira, idatziz zein marrazkien bidez adierazita. Lehendabizi, alde bateko ume batek beste aldeko bati tututik atsotitz baten zatia xuxurlatuko dio eta hark beste erdia aurkitu beharko du.</p> <p>4) Umeak atsotitzak sortzen joango dira eta bitartean ainguraren beste aldera iristeko baliabideak lortuko dituzte, erantzun egoki bakoitzeko adibidez harri bat, ura zeharkatzeko. Horrela, beste ertzeraino iritsi arte.</p> <p>5) Aingura zeharkatzeko haurrek eskura izango dituzten atsotitzak:</p> <table border="0" style="width: 100%;"> <tr> <td>- Gogozko tokian aldaparik ez</td> <td>- Hil da gero salda bero</td> <td>- Non gogoa han zangoa</td> </tr> <tr> <td>- Urrutiko intxaurrek 14 gerturatu eta 4</td> <td>- Dagoenean bonbon ez dagoenean hor konpon!</td> <td>- Hor konpon Mari Anton!</td> </tr> <tr> <td>- Zozoak beleari ipurbeltz</td> <td>- Zakur zaunkaria nekez hozkaria</td> <td>- A ze parea karakola eta barea</td> </tr> </table>				- Gogozko tokian aldaparik ez	- Hil da gero salda bero	- Non gogoa han zangoa	- Urrutiko intxaurrek 14 gerturatu eta 4	- Dagoenean bonbon ez dagoenean hor konpon!	- Hor konpon Mari Anton!	- Zozoak beleari ipurbeltz	- Zakur zaunkaria nekez hozkaria	- A ze parea karakola eta barea
- Gogozko tokian aldaparik ez	- Hil da gero salda bero	- Non gogoa han zangoa										
- Urrutiko intxaurrek 14 gerturatu eta 4	- Dagoenean bonbon ez dagoenean hor konpon!	- Hor konpon Mari Anton!										
- Zozoak beleari ipurbeltz	- Zakur zaunkaria nekez hozkaria	- A ze parea karakola eta barea										
<b>MATERIALA</b>	<p>- Atsotitzak, koloretako kartulinak, forratzeko papera, belkroa (horman itsasteko), kartoizko kaxak (harriak fabrikatzeko) eta argazki kamera.</p> <p>- Tutuak egiteko: koloretako telak, kola zuria, zela, gometxak, errotulagailuak eta birziklatutako kartoizko tutuak (txikiak, ertainak, handiak).</p>											
<b>IRAUPENA</b>	<b>ESPAZIOA</b>	<b>KOPURUA</b>	<b>MOTA</b>									
15 minutu	PSIKOMOTRIZITATE GELA	2 TALDE	IBILBIDEA									

## ITSASO GAZI GOZOA (2.Ibilbidea)

### AZALPENA

1) Umeek istorioan protagonista izango den itsasoari buruzko istorio labur bat entzungo dute bozgorailuetatik, itsasoko animalien istorioa, hain zuzen.

2) Istorioa: Mundua amaitzen zen herri txiki hartan, edo hori zirudien behintzat. Itsasoa ikusten zen (etenaldia) eta itsasoko olatuen hotsa entzuten zen soilik (etenaldia). Baina egun batean munduko azken herrialde zen hori ere desagertu egin zen (etenaldia), itsasoak irentsi egin zuen (etenaldia). Bazirudien bertan ez zegoela inor, ura soilik, ur gazi gozoa. Jada ez ziren lehengo soinuak entzuten, ez zegoen festarik (etenaldia), iskanbilarik (etenaldia), txorien txorik, ezta belarrira xuxurlatzen zuen haizerik. Halere, bizitza ez zela existitzen zirudien herri hori inoiz baino biagiago zegoen. Abandonaturik zeuden etxeetan orain karramarroak bizi ziren, pintzen hotsekin ingurua alaituz (etenaldia) eta lorez beteriko larre berdeetan trikuak deskantsatzen zuten, ziztada txikiez belar txar guztiak kenduz. Gainera, orain dela urte asko errege soil baten gaztelua zena orain itsasoko animalia guztien etxea zen; delfinena (eten.), marrazoena (eten.), karraspioena (eten.), batetik bestera ibiltzen ziren arrain globoena (eten.)... itsasoko arrain handienetik txikienera arteko guztiak bertan bizi ziren. Nahiz eta kanpotik ezer ez ikusi, ez entzun (etenaldia), barruan izugarritzko bizia zegoen. Ikusezina dena ere ikusgarria delako. Ez dagoena ere badagoelako.

3) Haurrak, istorioa behin entzun ondoren bi taldetan banatuko dira. Erdi batek istorioak kontatzen duena itzalen bidez antzetzuko du, gorputza, paperak eta material ezberdinak erabiliz eta beste erdiak, berriz, istorioari musika eta erritmoa jarriko dio, etenaldiak daudenean musika instrumentuekin zein gorputzarekin hotsak eginez.

#### MATERIALA

- Ordenagailua, bozgorailuak, proiektorea, paperak, arrain mota desberdinen formako kartulinak, argazki kamera eta istorioaren audioa



Grabación (online-audio-converter.com).mp3

- Instrumentu musikalak: danborra, txindatak, kriskitinak, kaxa txinatarra, panderoa, xilofonoa, metalofonoa eta marakak.

#### IRAUPENA

#### ESPAZIOA

#### KOPURUA

#### MOTA

30 minutu

PSIKOMOTRIZITATE  
GELA

2 TALDE

IBILBIDEA

## OLATUEN SEKRETUA (2.Ibilbidea)

### AZALPENA

- 1) Haurrak 5 pertsonako lau taldetan banatuko dira eta dinamizatzailerik lau asmakizun\* irakurriko dizkie talde guztiei batera. Erantzuna asmatzen duen lehenengo taldeak errima bat jasoko du eta horrela talde bakoitzak bere errima (-ena, -ona, -ia, -ama) izan arte.
- 2) Errima ematerakoan tanta baten formako bi orriko liburuxka txikia emango zaie taldeei, non egokitu zaien errimaz amaitzen diren hitzak aurkituko dituzten.
- 3) Ume bakoitzak hitz bat aukeratu beharko du besteek ikusi gabe eta ondoren, banan-banan, ume bakoitzak irakaslearen laguntzarekin esaldi bat idatziko du.
- 4) Lehenengoak idatzita duenean orria tolestu eta ondorengoari pasako dio, horrela haur guztien eskuetatik igaro arte.
- 5) Azkenik, talde guztiak bilduko dira eta talde bakoitzeko haur batek edota dinamizatzailerik sortu diren istorio bitxiak irakurriko dituzte, hots, olatuen sekretuak kontatuko dituzte:

#### **\*Begi-niniak**

Din-dan!  
Nor da?  
Su bat...edo bi!  
Itxi, itxi!  
Din-den!  
Nor da?  
Arrosak...hamabi!  
Ireki, ireki!  
Din-din!  
Nor da?  
Arantza...argi!  
Itxi, itxi!  
Din-don!  
Nor da?  
Irribarrez...ilargi!  
Ireki, ireki!  
Din-dun!  
Nor da?  
Eztiki...egunsenti!  
Itxi...Ez! Ireki!

#### **\*Mingainaren dantza**

Jantzi gorri apainez  
Arrain dantzaria,  
Hitzen ibaian murgil  
Poxpolinkaria.  
Bat, bi, hiru;  
Bat, bi, hiru.  
Ilargia kantuan  
Tiruliruliru.  
Jira eta bira dabil  
Hitzen aitzindari,  
Soinu-ibaian doa  
Arraina dantzari.  
Bat, bi, hiru;  
Bat, bi, hiru.  
Ilargiak zeruan  
Dantza egin nahi du.  
Ilargi eta arraina  
Dantzan doinuzale,  
Hitzaren jirabiran  
Elkarren maitale.  
Bat, bi, hiru;  
Bat, bi, hiru.  
Ilargiak jauzika  
Oinak arin ditu.

## AZALPENA

### \*Hortz-haginen kantua

Gerlariak ilarak  
 Etxeko zaindari;  
 Denak ezpatari eskuak ikaran.

Klaska-klaska,  
 Izutzen direlarik;  
 Klaska-klaska  
 Jaten dutelarik.

Itxi eta ireki atea  
 Etxe bustikoa,  
 Janariak hartzeko  
 Armada tinkoa.

Klaska-klaska,  
 Hotza dutelarik;  
 Klaska-klaska,  
 Barrez direlarik.

### \*Sorbaldak

Gorputzaren goi-goian  
 Zelai zabalak, oi, ei;  
 Zeruertza ukitzen dute  
 Eta eutsi nire balantzei.

Gorputzaren goi-goian  
 Zuhaitz-adar zabal bi,  
 Handik zintzilik bizkar-zorroz  
 Jakinduriaren zaldi.

Gorputzaren goi-goian  
 Eraman dezaket mundua,  
 Bizitza osoa dut aurretik  
 Itxaropenez ondua.

### MATERIALA

- Tanta formako zortzi kartulina urdin (binaka lotuak joango direnak), errotuladoreak eta boligrafoak, argazki kamera (espazioaren eta umeez bertan duten elkarrekintzaren argazkiak ateratzeko)

- Asmakizunak: Juan kruz Igerabideren *Gorputz osorako poemak* liburutik harturiko lau olerkiak (begi-niniak, hortz-haginen kantua, mingainaren dantza eta sorbaldak).

- Mural papera (dinamizatzaileak umeez sortutako istorioak idazteko).

### IRAUPENA

### ESPAZIOA

### KOPURUA

### MOTA

30 minutu

PSIKOMOTRIZITATE  
 GELA

4 TALDE

IBILBIDEA

#### 5.4.4 4.Saioa

### TXIPRISTINAREN TANTAK

#### AZALPENA

- 1) Dinamizataileak hurrekin eta irakaslearekin batu eta egindako jolas eta ibilbideari buruz hitz egingo dute; ea gustatu zaien, zer izan den dibertigarria e.a. Bitartean, ibilbidean zehar egindako argazkiak ikusiko dituzte guztien artean, egindakoa gogoratzuz eta bakoitzak bizi izan dituen egoera desberdinak azalduz zein deskribatuz.
- 2) Ibilbideko mundu fantastikoari buruz hitz egin ondoren ume bakoitzak buruan duen mundu fantastiko horiek marraztuko dituzte eta guztiekin batera horietaz mintzatuko dira; ea nolakoa den, ze pertsonai mota egongo lirakeen bertan, nolako liburuak, ze abesti mota, zer egingo luketen bertan, nola apainduko zuten e.a.
- 3) Umeen ideia guztiak bildu ahal izateko dinamizataileak gelako arbelean datu guztiak apuntatuko ditu eta behin umeei esandako guztia bilduta guztion artean izena jarriko diote mundu fantastikoari eta bertan egongo lirakeen pertsonai desberdinak sortuko lituzkete.
- 4) Pertsonai fantastikoak sortzeko dinamizataileek galdera desberdinak egingo dizkiete hurrei adibidez; handia ala txikia izango da? zenbat begi izango ditu? Non egingo du lan? Zein izango da bere afizioa? Ilerik izango du? e.a. Modu horretan, hurrek botatzen dituzten lehen erantzunak marrazten joango da.
- 5) Mundu fantastikoaren izena, bertako pertsonaien deskribapena eta aurreko ideia guztiak jakinda haurrentzako poesia lantzeko espazio egoki bat nolakoa litzatekeen deskribatuko dute.

MATERIALA	- Arbela, klariona, alfonbra edo aulkiak (umeak esertzeko), ibilbidean zehar ateratako argazkiak, orri zuriak, koloretako margoak, errotuladoreak, ordenagailua eta proiektorea. - Argazki kamera		
IRAUPENA	ESPAZIOA	KOPURUA	MOTA
30 minutu	GELA EGONKORRA	IKASTETXE BAKOITZEKO IKASLE TALDEA	ASANBLADA

### 5.4.5 5.Saioa

<b>FANTASIAZKO MUNDUA</b>			
<b>AZALPENA</b>			
<p>1) Aurreko eguneko ideiak kontuak harturik guztiak batera asanbladan bilduko dira eta esandako zein apuntatutako guztia errepasatuko dute gainerik.</p> <p>2) Dinamizatzaileek eta irakasleek ekarritako material guztiarekin umeak haien mundu txiki bezain fantastikoa sortzen hasiko dira, irakasleak gela egonkorrean bertan libre utzi duen txokoa apaintzen; telak jarritz, argazkiak, marrazkiak, kuxinak, sokak...</p> <p>3) Dinamizatzailearekin batera sorturiko pertsonaiak marraztuko dituzte eta mundu fantastikoari jarritako izena idatziko dute, bertan kokatuz. Ordenagailuan gustuko abestiak bilatuko dituzte.</p> <p>4) Behin umeek haien mundu fantastiko propioa sortuta bertako arauak finkatu eta horman itsatsiko dituzte. Hortik aurrera irakaslea eta dinamizatzaileak apurka-apurka liburu eta ariketa ezberdinak proposatzen joango dira asteetan zehar.</p> <p>5) Horrela, poliki-poliki guztien artean haien poesiaren txokoa osatzen joango dira modu dibertigarri eta guztiz sortzaile batean.</p>			
<b>MATERIALA</b>	<p>- Haurren mundu fantastikoa apaintzeko beharrezko materialak: (telak, oihalak, marrazkiak, kuxinak, liburuak, argazkiak, aukeratutako gaiaren inguruko argazkiak, sokak, artilea, globoak, pertsonaien eta munduaren izenak sortzeko kartulina, errotuladore, tenpera, orri zuriak, koloretako kartulinak, errotuladoreak, pintzel eta margoak.</p> <p>- Ordenagailua eta argazki kamera.</p>		
<b>IRAUPENA</b>	<b>ESPAZIOA</b>	<b>KOPURUA</b>	<b>MOTA</b>
1 ordu eta 30 minutu	GELA EGONKORRA	IKASTETXE BAKOITZEKO IKASLE TALDEA	SORMEN TAILERRA



### 5.4.6 6. Saioa

<b>NOR DA ZER? ZER DA NOR?</b>			
<b>AZALPENA</b>			
<p>1) Ume bakoitzak bere etxetik objektu bana ekarriko du poesiaren txokoan jartzeko, asko gustatzen zaien edo arrazoi batengatik arraroa iruditzen zaien bat.</p> <p>2) Bertan banan-banan zer den, zergatik ekarri duten, zertarako erabiltzen den, izenik duen etab. azalduko dute eta bakoitzak leku bat aurkituko dio bere objektuari txokoan.</p> <p>3) Objektuak behin kokatuta, mahaietan egongo diren mota askotariko aldizkariak eta egunkariak begiratu eta bertako hitz zein irudiak erabiliz bakoitzak poema bat egingo dio bere objektuari.</p> <p>4) Poemak zenbait hitz solte edo marrazki desberdinak izan ditzake, haientzat esangura gehien duena.</p> <p>5) Behin poema bukatuta bakoitzak norberarentzat ezizen bat pentsatu beharko du, artistak bezala horrelako ariketak egiterako garaian erabiliko duena. Ezizena poemaren azpiko aldean idatzi eta azkenik, etxetik ekarritako objektuaren ondoan kokatuko dute.</p> <p>6) Lana bukatu ondoren guztiok batera eseri eta egindakoari buruz hitz egingo dute dinamizatzaile eta irakaslearekin batera, poema eta ezizen ezberdinak deskubritzeko.</p>			
<b>MATERIALA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Etxetik ekarritako objektuak, orri zuriak, aldizkariak, egunkariak, kola zuria, kola, arkatzak, boligrafoak, errotuladoreak, guraizeak eta kartulinak.</li> <li>- Argazki kamera</li> </ul>		
<b>IRAUPENA</b>	<b>ESPAZIOA</b>	<b>KOPURUA</b>	<b>MOTA</b>
30/ 45 minutu	GELA EGONKORRA	IKASTETXE BAKOITZEKO IKASLE TALDEA	SORMEN TAILERRA

### 5.4.7 7.Saioa

<b>ABEZEDARIOA</b>			
AZALPENA			
<p>1) Umeak bi taldetan banatuko dira eta bi talde horiek beste bi azpitaldetan banatuak egongo dira hurrengo jolasean parte hartzeko:</p> <p>2) Patioan orri erraldoi bat egongo da lurrean lauki ezberdinetan banatua eta lauki bakoitzean hizki bat egongo da idatzita. Horiek abezedarioaren ordena jarraituko dute eta kolore ezberdinez idatzita egongo dira.</p> <p>3) Dinamizatzailleak talde bakoitzeko azpitalde bati hizki ezberdinak banaka esango dizkio eta horiek, hizkiak ze kolore eta non kokatuta dagoen ikusita beste azpitaldeko pertsona bati (txandaka) bertara arte gidatu beharko dio (<i>Adb. Eskuinetik hasita gorantz hirugarrena, kolore gorri idatzirik dagoena</i>).</p> <p>4) Gidatua izaten dabilen umeak hizkia aurkitu, gainean jarri eta korrikan horman itsatsita egongo den kartulina handian idatzi beharko du. Horrela, hitz oso bat osatu arte. Kontuan izango da ume kopurua, asko izatekotan hitz bat izan beharrean esaldi txiki bat osatu beharko dute eta.</p> <p>5) Behin bi taldeek hitzak osatuta dutela guztion artean koplak txiki bat sortuko dute (osatutako hitzak barnebilduko dituenak).</p>			
<b>MATERIALA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mural orria, koloretako errotuladoreak, kartulina handia horman itsasteko, boligrafoak, kartulina txikiak hizki desberdinekin (lehenengo azpitaldeari beste azpitaldeko pertsona nora gidatu behar duen jakinarazteko)</li> <li>- Argazki kamera</li> </ul>		
IRAUPENA	ESPAZIOA	KOPURUA	MOTA
1 ordu eta 15 minutu	ESKOLAKO PATIOA	2 TALDE	SORMEN TAILERRA

## 4.8 8.Saioa

### XOMORROPOEMAK ETA BESTE PIZTIA BATZUK

#### AZALPENA

- 1) Dinamizataileek *Xomorropoema eta beste piztia batzuk* deituriko liburuko lau poema\* (Zaratatsua eta indartsua behi lodiaren puzkerra, Nola edan euria, Ohean ardiak kontatzen eta Ilargi zati batekin amesten dute saguek) irakurriko dizkie haurrei, zomorro ezberdinak aurkeztuz.
- 2) Poema ezberdinak entzun ondoren haur bakoitzak bere xomorroa sortuko du orri batean marraztuz. Horretarako, nahi duten materiala erabili ahal izango dute; klarionak, errotuladoreak, argizariak etab.
- 3) Bakoitzak bere xomorroa sortu ondoren, marrazkia kalkatuz material ezberdinekin aurretik egindakoaren pareko bat sortuko dugu. Baina horretako, kartulina beltza eta *Celofan* papera erabiliko dira.
- 4) Xomorroak bukatutakoan dinamizataileek liburuko poema ezberdinak erabiliko dituzte egoera ezberdinak jartzeko. Modu horretan, argiak itzalita eta proiektorearen laguntzaz eszenatoki bat sortuko dute eta bertan xomorroak izango dira protagonistak.
- 5) Haurrek, haien xomorroak erabiliz poemek hitz egiten duten egoeretan inprobisazioak egingo dituzte; taldeka zein banaka.

#### **\*Zaratatsua eta indartsua behi lodiaren puzkerra**

Trumoi hotsa bat-batean  
zuhaitzak dar-dar betean  
farolak dantzan eta  
etxeak mugitzen katean.

Autoak bilintzi-balantza  
galdua dute norantza  
harriak hasi dira saltoka  
goikoak behera eta behekoak gorantza

Hauxe da hauxe iskanbila  
katramila demasa  
ene, a ze anabasa  
behi lodiaren puzkerra  
ez da oharkabe pasa!

#### **\*Nola edan euria**

Euri zaparrada, euri zaparrada  
igelak putzutik irten dira, hara!  
euri zaparrada, euri zaparrada  
karakolak bere etxea du laga  
euri zaparrada, euri zaparrada  
sugelandareak buztana bistara  
euri zaparrada euri zaparrada  
bareak pirritan gorantz arbolarantz  
euri zaparrada, euri zaparrada  
lur azpitik gora zizare ilara  
euri zaparrada, euri zaparrada  
neu ere arraina bihurtu naiz bada  
euri zaparrada, euri zaparrada  
aterkia itxi, mingaina atara!

AZALPENA

**\*Ohean ardiak kontatzen**

Bat eta bi,  
beldurrez nago ni  
hiru eta lau,  
mamuak jango nau  
bost eta sei,  
aitari egin dei  
zazpi eta zortzi,  
azaretan ehortzi  
bederatzi hamar,  
oraindik naiz dar-dar  
hamaika hamabi,  
mamua dantzari  
hamahiru hamalau,  
oihu eta alarau,  
hamabost hamasei,  
ez laino ez hodei  
hamazazpi hemezortzi,  
aitaren eskuak igurtzi  
hemeretzi hoge,  
adio mamuei!

**\*Ilargi zati batekin amesten dute saguek**

Ilbetea, ilbetea  
saguek nahi dute  
ilargia jatea.

Ilgora, ilgora  
sagu koadrila doa  
zeruko hormetan gora.

Ilbehera, ilbehera  
oso-osorik jatea  
posible ote da?

Ilberria, ilberria  
biribil biribila  
saguen gerria.

MATERIALA

- Leire Bilbaoren *Xomorropoema eta beste piztia batzuk* liburutik harturiko lau poema (Zaratatsua eta indartsua behi lodiaren puzkerra, Nola edan euria, Ohean ardiak kontatzen eta Ilargi zati batekin amesten dute saguek), orri zuriak, koloretako argizariak, guraizeak, kola, kartulina beltza, koloretako *Celofan* papera, zotzak, zeloa, proiektorea, linternak,
- Argazki kamera

IRAUPENA

ESPAZIOA

KOPURUA

MOTA

1 ordu

GELA EGONKORRA

IKASTETXE BAKOITZEKO  
IKASLE TALDEA

SORMEN  
TAILERRA

### 5.4.9 9.Saioa

<b>ONOMATOPEIAK</b>			
AZALPENA			
<p>1) Haurrak hiru talde ezberdinetan banatuko dira eta gela hiru txoko ezberdin prestatuko dira. Batean onomatopeia* konkretu batzuek marrazkiak egongo dira, bestean, onomatopeiak idatzirik eta, hirugarrenean, 8 ume (4 talde bakoitzeko), dinamizatzaileak esandako onomatopeiak imitatzen.</p> <p>2) Ume horiek onomatopeia ezberdinen egoera edo esanahia imitatu beharko dute bere gorputzarekin baina geldi egonez, estatuak izango balira bezala. Soilik, ume batek egindakoa izango da benetako onomatopeia.</p> <p>3) Bi taldetako beste ume guztiak binaka jarriko dira eta ibilbide guztia egin beharko dute, hiru txokoak lotuz. Hots, bozgorailuetatik onomatopeia bat entzungo da eta bi taldetatik lehenengo bikotea lehenengo txokora joan, horren marrazkia hartu, ondorengo txokoan onomatopeia bera idatzirik aurkitu eta haien taldekideetatik onomatopeia imitatzen ari dena zein den asmatu beharko dute, txokoetan harturiko marrazki eta hitzak bere azpian utziz.</p> <p><b>*Plisti-plasta</b> (uretan)      <b>*Txin-txin</b> (dirua)      <b>*Zapla</b> (belarrondokoa)      <b>*Klix-klax</b> (guraizeak)</p> <p><b>*Kar-kar</b> (barrea)      <b>*Danba-danba</b> (atea)      <b>*Dar-dar</b> (dardarka)      <b>*Turrut</b> (puzkerra)</p>			
<b>MATERIALA</b>	<p>- Onomatopeiak, onomatopeien marrazkiak, onomatopeiak idatzirik, orri zuriak, errotuladoreak, harmaila txikiak umeak gainean estatuak izateko, bozgorailuak, onomatopeien audioak</p> <p>- Argazki kamera</p>		
IRAUPENA	ESPAZIOA	KOPURUA	MOTA
45 minutu	ESKOLAKO PATIOA	3 TALDE	SORMEN TAILERRA

#### 5.4.10 10.Saioa

<b>ATZERAKO BIDAIA</b>			
AZALPENA			
<p>1) Dinamizatzaile, irakasle eta umeak batuko dira eta prozesu osoan zehar egindako argazki guztiak bilduko dituzte bideo bat sortzeko, ondorengo bi jardueretan erabilgarria izango dena.</p> <p>2) Horretarako, aukera izatekotan, eskolako arbel digital batean arituko lirateke guztiak parte hartzeko.</p> <p>3) Bideoa egin ahal izateko <i>Movie Maker</i> programa erabiliko dute, horrela, argazkiak juntatuko dituzte, musika ipiniko dute, animazioak jarriko dituzte etab.</p> <p>3) Arbel digitalik ez izatekotan dinamizatzaileek zenbait <i>Ipad</i> eramango dituzte tailerrera eta taldetan banatuz hurrek bideo desberdin txikiak egingo dituzte dinamizatzaileen eta irakaslearen laguntzaz.</p>			
<b>MATERIALA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arbel digitala, ordenagailua, bozgorailuak, <i>Movie Maker</i> programa, <i>Ipad</i>-ak, prozesu osoan zehar ateratako argazkiak eta abestiak (bideoan txertatzeko).</li> <li>- Argazki kamera</li> </ul>		
IRAUPENA	ESPAZIOA	KOPURUA	MOTA
1 ordu	ARBEL DIGITALAREN GELA (egotekotan) BESTELA, GELA EGONKORRA	IKASTETXE BAKOITZEKO IKASLE TALDEA	EBALUATZEKOA

#### 5.4.11 11.Saioa eta 12.Saioa

<b>MUSEOA</b>			
AZALPENA			
<p>1) Jarduera bi saiotan egingo da. Hamaikagarren saioan: Umeekin bildu eta egindakoa Haur Hezkuntzako beste kidei erakusteko proposatuko zaie eta, horretarako, museo bat sortuko dute.</p> <p>2) Egin beharrekoa adostuta, museoei buruz hitz egingo dute guztiek (ea noizbait bat edo baten egon diren, gustatu zitzaizen edo ez, zer ikusi zuten bertan... eta zer nolako langileak zeuden bertan.</p> <p>3) Museoei buruzko informazioa pixka bat argituta bakoitzak langile baten papera hartuko du: bisitaria, atezaina etab. Horrela, Haur Hezkuntzako beste umeak datozenean museoko bezeroak izango dira.</p> <p>4) Guztia errealagoa izateko, gela museo bat izango balitz bezala apainduko dute, prozesu osoan zehar sortutako materialak, argazkiak etab. erabiliz.</p> <p>5) Museorako inbitazio txartelak egingo dituzte eta Haur Hezkuntzako geletatik pasako dira beste umeak bertara gonbidatzeko.</p> <p>6) Hamabigarren saioan: Aurretik adostutako paperak azkeneko aldiz entsaiatuko dituzte eta gela egonkorra apaintzen amaituko dute, falta diren detaileak jarritz.</p> <p>7) Dekorazioa eta eginbeharrekoa behin amaituta, Haur Hezkuntzako ikasleak etorriko dira eta bakoitzak bere papera jarraituz ibilbide osoan zehar eginiko guztia azaldu eta erakutsiko die, azkenean aurreko jardueran egindako bideoa erakutsiz.</p>			
<b>MATERIALA</b>	<p>- Ordenagailua, proiektorea, aurreko jardueran egindako bideoa, prozesu osoan sortutako eta erabilitako materiala, pertsonaia bakoitzak behar izango dituen jantziak (gorbatak, alkandorak etab.), museorako inbitazioak, koloretako kartulinak eta errotuladoreak.</p>		
IRAUPENA	ESPAZIOA	KOPURUA	MOTA
<p>11.Saioa: 1 ordu eta 15 minutu</p> <p>12.Saioa: 1 ordu</p>	<p>GELA EGONKORRA</p>	<p>IKASTETXE BAKOITZEKO IKASLE TALDEA</p>	<p>EBALUATZEKOA</p>

## 6. BALIZKO APLIKAZIOARI BURUZKO GOGOETAK

Azaldu berri den “*Sekretuen haitzuloa*” deituriko espazioak eta honek biltzen dituen jolas guztiek, haurrengan eragin handia izan dezakete. Espazioa, gaur egun Haur Hezkuntzan gero eta gehiago erreparatzen den kontzeptua delako. Adibide gisa, Samuel Ruiz Gutierrez eta María Sonia Rebollo Arandaren (2015) hitzak aipa genitzake, haien aburuz espazioa leku bizi bat delako, komunikazioa sortzen den lekua. Horregatik, espazioak gela bera baino puntu gehiago hartu behar ditu kontuan: materiala, hormak, altzariak, horien distribuzio, etab. Hau da, espazioak ezin direla neutroak izan bertan sortzen baitira haurren elkarrekintza gehienak.

Nolanahi ere, hasierako ideia argi izanda eta “*Sekretuen haitzuloarekin*” lortu nahi ditugun xedeak erabat ulertuta ere zenbait zailtasun aurki ditzakegu bidean. Proposamen didaktiko honetan irakasleen lana esan genezake aurretik erabakitakoa izango dela. Eskolak eskatu duen zerbitzu bat izan arren, gerta daiteke irakasle konkretu batek proposamen hori aurrera eraman nahi ez izatea, hau da, inposaturiko zerbeit izatea. Arrazoi horien arabera, irakasle batzuk erresistentziak jartzea posible izan litzateke. Gainera, irakaslea bera egunero lanean ari den umeekin arituko gara, haien eguneroko eskolan eta eguneroko ikasgelan. Ezaugarriak horiek izanda baliteke irakaslea deseroso edota galduta sentitzea.

Horregatik, irakaslearentzat, ez bazaio alde aurretik ideia gustatu edo ez badu dinamizatzailerekin bere papera eta eginbeharrekoa adosten nahiko nekagarria gerta dakioke aurrera eraman beharreko espazioa. Oraindik zailagoa izango da, irakasle horrek ez badu poesiaren inguruko jakintza ezta ezagutza handirik, nahiz eta umeekin batera “*Sekretuen haitzuloan*” asko ikasiko duen.

Horren harira, behin tailerra bukatuta eta gela egonkorrean bertan poesiaren espazioa sortuta irakasleari ez bazaio egindakoa gustatu bertan behera gelditu daiteke. Proposamen didaktiko bat izan arren, ikastetxe eta irakasleen gustakoa izan bada jarraipena izan dezake. Hala ez izatekotan, hasierako helburuak modu ez hain errealean soilik lortzea lortuko lirateke, hau da, denboraldi konkretu batean.

Irakasleen lan zamaz gain, kontuan hartu beharko da eskola bakoitzak eskaintzen duen espazio eta baliabideak ez direla berdinak izango. Ikastetxe batzuetan behar beste espazio eskainiko zaigu; ikuskizuna prestatzeko, umeekin bertan jolasteko eta gela egonkorrean bertan mundu txiki bat sortzeko. Baina beste batzuetan agian ezingo dizkigute guk nahi besteko espazioak proportzionatu, gehienbat gela egonkorreko txoko txikiari dagokionez. Hala ere, hasieratik kontuan hartu den arazo



hipotetiko bat izanik, ikuskizuna gela txikiagoetara moldatzean eta azkeneko saioan sortuko den espazioa ere murriztagoa izatean ez dago problemarik.

Dinamizatzaileen kasuan nabarmendu dezakegun zailtasunik handiena ikastetxe batetik besterako aldaketen multzoa litzateke. Horiek tailerra behin eta berriz entsaiatu, irakurri eta prestatu arren, ikastetxe batean edo bestean izango dituzten baliabideak, irakasleak, beharrak etab. baliteke desberdinak izatea. Esate baterako, batzuetan haur kopuru nahiko handia bada, ariketak dezente luzatu daitezke eta denbora gabe gelditu beste batzuk egiteko. Nahiz eta jarduera batzuk aurrera eramateko ordutegiak zabaldu beste batzuetan ezinezkoa izango litzateke, haurren eskolako ordutegia baino luzeagoa geratuko baitzen.

Alabaina, gotorlekuko protagonistak izango diren umeak ezin ditugu inolaz ere ahaztu. Gerta liteke ariketaren bat edo beste haur batzuei ez gustatzea edota beste batzuk baino nekagarriagoa iruditzea baina arrazoi horregatik zehazki, proposatu diren ariketa guztien artean mota guztietakoak aurkitu ditzakegu. Beraz, hurrek ariketa ezberdinak egiteko aukera izango dute.

Kontuan hartzekoa da gainera, dinamizatzaileak Berritzeguneak eta Eusko Jaurlaritzak bidalitako pertsonak izanik, umeekin egin behar izango duten lana handia izan beharko dela. Hasieratik, ikuskizunean bertan eta horren ondoren, txikienekin ideiak elkartrukatu, konfiantza eman eta haien berdinak direla frogatu beharko dute. Soilik, horrela lortuko baitute haien helburua ondo betetzea eta, nola ez, hurrek disfrutatzea.

## 7. BALORAZIO PERTSONALA

Eskuarteon dugun Gradu Amaierako Lana nire bizitza akademikoan eginiko lan luzeena izan da, idatzitako lanaz gain, eskaini diodan denboragatik batez ere. Erabilitako denbora, baina, beharrezkoa izan da hasieratik buruan izan ditudan ideiak antolatzeke eta, horrela, orain arte egin dudan zuzenketaz beteriko bide sakonean aurrera egiteko.

Zuzenketaz zuzenketa, lana gero eta osatuagoa ikustean, gogotsuago eutsi diot egitasmoari. Gaia aukeratu eta tutorearekin egindako lehen bileratik bertatik sutzuki ekin nion pentsatzeari, sortzeari. Esan bezala, nik aukeraturiko gaia izan da, gutxi ezagutzen baina asko interesatzen zitzaidana. Hori gutxi balitz, Haur Poesiaren eremuan lan ezberdinak egiteko aukerak izan ditut, azkenik, proposamen didaktiko bat aukeratuz. Horrek, apurka-apurka, hasieran nituen lanarekiko igurikapen eta helburuak betetzea ekarri du. Izan ere, lanarekin ikastea eta ikasitakoaz gozatzearen helburua erabat bete da. GrAL-ak poesiaren munduan murgiltzera eraman nau eta, beraz, ikaskuntza prozesua benetan aberasgarria izan da.

Orobat, HGL, horren bilakaera eta Haur Poesia aztertu ditut, gaur egungo literaturaren egoera ulertzen lagundu didatenak, hain zuzen. Horrez gain, lan osoan zehar aipatu dudan jolasari buruzko informazio dezente lortu, irakurri eta horri buruz hausnartu dut, nigan bere garrantzia are gehiago sentitzea lortuz. Esan genezake, lan honen bitartez Euskal Herrian poesiak eta literaturak duen indarra deskubritu dudala eta hori haurren egunerokotasunean txertatzeko asmotan *“Sekretuen haitzuloa”* deritzon proposamen didaktikoa diseinatu dut. Horregatik, gustura bezain harro nago egindako lanarekin.

Nolanahi ere, bidean zenbait arazorekin topo egin dut, zeregina zaildu dutenak. Esanguratsuen hasiera batean proposatutako lana nahiko utopikoa izatearena izan zen, poesiaren mundua pixka bat ezagutu, iritzi ezberdinak kontrastatu eta errealitateatik at salto egin bainuen. Bestalde, etengabeko lana ere aipatu beharra daukat, ona baina aldi berean zaila izan delako momentu oro berdina mantentzen ahalegintzea.

Azalduriko zailtasunak gainditzeko, ezinbestekoa izan da GrAL-eko zuzendariak, Edu Zelaietak, emandako etengabeko laguntza eta aholkuak. Zuzenketa bakoitzean motibazio iturri izan da niretzat, hurrengo pausoa gero eta gertuago, gero eta errealago, ikusten lagundu didana. Gainera, hasiera batetik data konkretu batzuk finkatzeak eta, beraz, nik egin beharreko lana hasieratik argi izateak asko lagundu nau.

Modu horretan, lehen egunetik lanean hastea eta batzuetan beharrezko denbora hartzea ez da zaila izan.

Bestalde, ezin lana bukatu, berau aurrera eramaten lagundu didaten pertsona guztiei nire eskerrak eman gabe. Horregatik, har ditzatela nire eskerrik beroenak ingelesa perfektionatzen eta horrela nire lana osatzen lagundu didan Maria Izagak, prozesu osoan zehar lagun eta sostengu izan ditudan guztiak eta nola ez, erreferente ditudan Haur Literaturako idazle eta ameslari guztiak.

Azkenik, ez nuke lana bukatu nahi izango niretzat zailtasun izan den utopia aipatu gabe, zailtasun lagungarria izan delako, beharrezkoa iruditzen zaidalako. Eduardo Gomezek (2009) Eduardo Galeano idazlearen hitzak berreskuratzean esan bezala, utopia horizontean dagoelako. Bi pausu eman, bera bi pausu urruntzen da eta horizonteak beste hamar pausu emango ditu. Orduan, zertarako balio du utopiak? Horretarako, ibiltzeko.

## 8. ERREFERENTZIAK

- Añorga, P. (1998). *Jiran-biran*. 2. edizioa. Bilbo (Bizkaia): Aizkorri, orr.16-30.
- Arrieta, Y. (2005). *Gatzaren atzetik: Mari-Xor*. 1.edizioa. Bergara: Emakunde, orr.19-40.
- Astobieta, I., Basterretxea, G. eta Ibarretxe, J. (2016). Olerki xuxurlatua. *Behinola*, [online] 33(1), orr.6-13. 2017ko martxoaren 30ean berreskuratua izan da web orrialde honetatik: [https://issuu.com/behinola/docs/behinola\\_33](https://issuu.com/behinola/docs/behinola_33)
- Benito, J. (2006). Ibilbide ideologiko-poetikoa gatazkaren euskal poesian. In: I. Egaña, E. Zelaieta (koord), *Maldetan sagarrak: Euskal gatazka euskal literaturan*, 1. edizioa. [online] Donostia: Udako Euskal Unibertsitatea. 2017ko otsailaren 4an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: <https://addi.ehu.es/bitstream/10810/10851/1/Maldetan%20sagarrak..pdf>
- Bilbao, L. eta Mutuberria, M. (2016). *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk*. 1. edizioa. Arre (Nafarroa): Pamiela, orr.43, 50, 60, 66.
- Bombini, G. eta Lomas, C. (2016). La educación poética. *Textos*, [online] 72, orr.4-7. 2017ko martxoaren 11an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: <http://file:///C:/Users/usuario1/Downloads/TX07200.pdf>
- Bravo-villasante, C. (1992). Dossier Poesía. Los grandes poetas y los niños. *Educación y Biblioteca*, 24(1), orr.36-37.
- Cabello Salguero, M. (2011). *Aprender jugando en educación infantil*. [online] Pedagogía Magna. 2017ko otsailaren 4an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/3629174.pdf>
- Colomer, T. (2005). El desenlace de los cuentos como ejemplo de las funciones de la literatura infantil y juvenil. *Revista de Educación*, [online] (Extraordinaria), orr.203-216. 2017ko martxoaren 11an berreskuratua izan da web orrialde honetatik: [http://www.revistaeducacion.mec.es/re2005/re2005\\_16.pdf](http://www.revistaeducacion.mec.es/re2005/re2005_16.pdf)
- Colomer, T. (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual*. 2. edizioa. Madril: Síntesis, orr.15-58, 153-155.
- Crespillo Álvarez, E. (2010). El juego como actividad enseñanza-aprendizaje. *Gibralfaro*, [online] 68(14). 2017ko otsailaren 6an berreskuratua izan da honako web orrialdetik: [http://www.gibralfaro.uma.es/educacion/pag\\_1663.htm](http://www.gibralfaro.uma.es/educacion/pag_1663.htm)

- Del Toro, V. (2013). El juego como herramienta educativa del educador social en actividades de animación sociocultural y de ocio y tiempo libre con niños con discapacidad. *RES : Revista De Educación Social*, (16). 2017ko martxoaren 21ean berreskuratua izan da honako web orrialdetik:  
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5360177&orden=0&info=link>.
- Digón, Regueiro, P. (2006). El caduco mundo de Disney: propuesta de análisis crítico en la escuela. *Comunicar, Revista de Comunicación y Educación*, [online] 26, orr.163-169. 2017ko otsailaren 7an berreskuratua izan da web orrialde honetatik:  
<file:///C:/Users/usuario1/Desktop/GrAL/Marko%20teorikue/Testuak/Haur%20literatura/Dialnet-ElCaducoMundoDeDisney-1985811.pdf>
- EAEko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila (2016). 237/2015 Dekretua. Haur Hezkuntzako Curriculuma. EHAA, 9 zk., 2016ko urtarrilak 15, ostirala. Euskaraz. 2017ko martxoaren 11an berreskuratua izan da web orrialde honetatik:  
<https://www.euskadi.eus/y22bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>
- Eizagirre, P. (2017). *Atsotitzak | aittu*. [online] Aittu.net. 2017ko martxoaren 30ean berreskuratua izan da web orrialde honetatik:  
<http://www.aittu.net/?q=node/242>
- Etxaniz, X. (1992). *Haur Literaturaren inguruan*. 1.edizioa. Iruña: UEUren Literatura Saila, orr.9-30.
- Etxaniz, X. (1996). *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. 1.edizioa. Gasteiz: EHU-UPV, orr.11-77.
- Fernández, V. (2015). Neskatilak (Gehiengoa ala gutxiengoa?). *Behinola*, 32(1).
- Galtzagorri Elkarte. (2008). *Bularretik Mintzora*. [online]. 2017ko apirilaren 20an berreskuratua izan da web orrialde honetatik:  
<https://www.bularretikmintzora.org/azalpena>
- Garaigordobil Landazabal, M.(2005). *Diseño y evaluación de un programa de intervención socioemocional para promover la conducta prosocial y prevenir la violencia*. Madril: MEC. CIDE.  
<http://www.observatorioperu.com/libros%202010/diciembre/Intervencion%20psicosocial-Premio%20OO3%20MEC%20Programa%2010-12.pdf>

- Gómez, E. (2009). ¿Para qué sirve la utopía?. *Revista Digital del IES San Miguel de Meruelo*. [online]. 2017ko maiatzaren 13an berreskuratua izan da web orrialde honetatik:  
<https://revistaiesmeruelo.wordpress.com/2009/11/18/%C2%BFpara-que-sirve-la-utopia/>
- Gomez Zubia, G. (2004). Charles Perrault eta Grimm anaiak, ahozko narratibaren egokitzailak. *Behinola*, [online] 10(1),orr.26-38. 2017ko otsailaren 6an berreskuratua izan da honako web orrialdetik:  
<http://www.galtzagorri.eus/behinola/dokumentuak/075.pdf>
- Guzmán, R. and Guevara Jiménez, M. (2010). Concepciones de infancia, alfabetización inicial y aprendizaje de los educadores y educadoras. *Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud*, [online] 8(2), orr.862. 2017ko martxoaren 20an berreskuratua izan da web orrialde honetatik:<http://file:///C:/Users/usuario1/Downloads/Dialnet-ConcepcionesDeInfanciaAlfabetizacionInicialYAprend-3356261.pdf>
- Henche Zabala, I. (2008). *Educar en valores a través de los cuentos*. 1. edizioa. Buenos Aires: Bonum, orr.17-76.
- Igerabide, J. (1992). *Haur Literaturaren inguruan*. 1.edizioa. Iruña: UEUren Literatura Saila, orr.41-64.
- Igerabide, J. (1994). Haur Literaturaz. *Hegats*, [online] (9), orr.9-19. 2017ko otsailaren 4an berreskuratua izan da web orrialde honetatik:  
<http://www.idazleak.eus/fitzategiak/dokumentuak/aldizkariak/094.pdf>
- Igerabide, J. (2003). Haur poesia eta ahozko tradizioa. *Sancho el Sabio*, [online] 18, orr.39-50. 2017ko otsailaren 6an berreskuratua izan da web orrialde honetatik:  
<https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/637397.pdf>
- Igerabide, J. (2005). *Gorputz osorako poemak*. 1. edizioa. Bilbo (Bizkaia): Aizkorri, orr.20-38.
- Igerabide, J. (2014). *Ur: Euriaren liburua*. 1.edizioa. Berriozar (Nafarroa): Denonartean.
- Jean, G. (1992). Dossier Poesía. En la escuela de la poesía. *Educación y Biblioteca*, 24(1), orr.40-41.
- Juan, A. (2017). *Bihotzak taup-taup egiten al dizu? Euskal onomatopeiak!*. [online] Euskara. 2017ko maiatzaren 9an berreskuratua izan da web orrialde

honetatik: <http://www.blogseitb.net/euskara/2012/06/28/bihotzak-taup-taup-egiten-al-dizu-euskal-onomatopeiak>

Juliano, D. (2005). Lilura arrazoitzen. In Gatzaren aztetik Marixor. Emakunde

Kazabon, A. (2000). *Kilikolore*. 1. edizioa. Donostia: Elkarlanean, orr.10-11.

Kazabon, A. (2006). *Errekak su*. 1. edizioa. Bilbo: Desclée De Brouwer, orr.42.

Laorden Gutiérrez, C. eta Pérez López, C. (2002). El espacio como elemento facilitador del aprendizaje. Una experiencia en la formación inicial del profesorado. *Pulso*, [online] 25(1), orr.133-146. 2017ko Martxoaren 27an berreskuratuz izan da web orrialde honetatik:

<http://file:///C:/Users/usuario1/Downloads/Dialnet-EIespacioComoElementoFacilitadorDelAprendizaje-243780.pdf>

Lertxundi, A. (2002). *Aizak eta aizan elkarrekin dantzan*. 1.edizioa. Donostia: Elkar, orr.78.

Lluch, G. (2004). Ahozko tradizio kontakizunak: tradizio batekiko «leialtasuna». *Behinola*, [online] 10(1), orr.17-25. 2017ko otsailaren 6an berreskuratua izan da web orrialde honetatik:

<http://www.galtzagorri.eus/behinola/dokumentuak/075.pdf>

Lopez Gaseni, M. (1992). *Haur Literaturaren inguruan*. 1.edizioa. Iruña: UEUren Literatura Saila, orr.65-72.

Lopez Gaseni, M. (2006). *Literaturak umeei begiratu zienean*. 1. edizioa. Iruña: Pamiela, orr.54-57, 99-104.

López, N. eta Bautista, J. (2002) *El juego didáctico como estrategia de atención a la diversidad*. Supervisión Pedagógica del MEC (Paraguay). Huelvako Unibertsitatea. 2017ko atsailaren 7an berreskuratua izan da honako web orrialdetik:[http://www.uhu.es/agora/version01/digital/numeros/04/04-articulos/miscelanea/pdf\\_4/03.PDF](http://www.uhu.es/agora/version01/digital/numeros/04/04-articulos/miscelanea/pdf_4/03.PDF)

López Valero, A., Jerez Martínez, I. eta Encabo Fernández, E. (2010). *La poesía en Educación Infantil*. Grupo de Investigación Didáctica de la lengua y la Literatura. Murtzia: Murtziako Unibertsitatea.

- Medrano, B., Goitia, A. eta Medrano Asenjo, L. (2007). *Ipuinak ez sexistak izateko gida*. 1.edizioa. Bilbo: Emaisia Elkarte.
- Mendoza, A. (2008). Función de la Literatura Infantil y Juvenil en la formación de la competencia literaria. *Biblioteca virtual Miguel de Cervantes*, [online] orr.11-53. 2017ko apirilaren 20an berreskuratua izan da web orrialde honetatik: <http://www.biblioteca.org.ar/libros/154715.pdf>
- Moreno, V. (1998). *Va de poesía: propuestas para despertar el deseo de leer y escribir poesías*. 1.edizioa. Villava-Atarrabia: Pamiela.
- Moreno, V. (2008). Textos literarios y contextos escolares: Literatura para ser leída, imitada y transformada. *Revista de Educación*, [online] 359(1), orr.179-199. 2017ko otsailaren 6an berreskuratua izan da web orrialde honetarik: <https://books.google.es/books?id=X1qpBgAAQBAJ&pg=PA678&dq=Literatura+para+ser+le%C3%ADda,+imitada+y+transformada.+Revista+de+educaci%C3%B3n&hl=en&sa=X&ved=0ahUKewjV3rGfsvzRAhVH2RoKHYJ6Ac8Q6AEIKjAA#v=onepage&q=Literatura%20para%20ser%20le%C3%ADda%2C%20imitada%20y%20transformada.%20Revista%20de%20educaci%C3%B3n&f=false>
- Mulero, J. eta Lasarte, G. (2015). Ehun liburu mende baterako: Ipuin sendagarriak. *IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica*, 15, 119-150. 2017ko otsailaren 6an berreskuratua izan da web orrialde honetatik: [http://www.ehu.es/ikastorratza/15\\_alea/ipuin.pdf](http://www.ehu.es/ikastorratza/15_alea/ipuin.pdf)
- Olaso, X. (2004). *Pupuan Trapua*. 1. edizioa. Iruña (Nafarroa): Pamiela, orr.25.
- Olaso, X. (2012). *Tximeletrak*. 1. edizioa. Iruña (Nafarroa): Pamiela, orr.73.
- Padial Díaz, S. (2014). Aprender jugando: una forma divertida y práctica de aprender. *Eticanet, Revista científica electrónica de Educación y Comunicación en la Sociedad del Conocimiento*, [online] 14(1). 2017ko otsailaren 6an berreskuratua izan da web orrialde honetatik: <http://www.ugr.es/~sevimeco/revistaeticanet/numero141/Articulos/.../195.pdf>
- Pajuelo, P. (2017). *Olerkiak*. [online] Kurubioa.blogspot.com.es. 2017ko martxoaren 30ean berreskuratua izan da web orrialde honetatik: <http://kurubioa.blogspot.com.es/2010/05/olerkiak.html>



- Pelegrin, A. (1993). Juegos y poesía tradicional infantil. *Revista Interuniversitaria de Formación del profesorado*, [online] 18(1), orr.43-51. 2017otsailaren 6an berreskuratua izan da web orrialde honetatik:  
[http://www.aufop.com/aufop/uploaded\\_files/articulos/1273009675.pdf](http://www.aufop.com/aufop/uploaded_files/articulos/1273009675.pdf)
- Ramos, F eta Vadillo. J. (2012). *Cuentos que enseñan a vivir. Fantasía y emociones a través de la palabra*. 2. edizioa. Madril: Narcea.
- Ruiz, S. & Rebollo, M.S. (2015). El aula de Educación Infantil: el aula creativa. *ENSAYOS, Revista de la Facultad de Educación de Albacete*, 30(2). 2017ko apirilaren 20an berreskuratua izan da web orrialde honetatik:  
<http://www.revista.uclm.es/index.php/ensayos>
- Satrustegi, J. (2004). Ipuin miresgarrien mezu ezkutua. *Behinola*, [online] 10(1), orr.9-15. 2017ko otsailaren 4an berreskuratua izan da web orrialde honetatik:  
<http://www.galtzagorri.eus/behinola/dokumentuak/075.pdf>
- Ventura, A. (1992). Dossier poesía. La poesía no tiene edad. *Educación y biblioteca*. 24(1),orr.39.

## ERANSKINAK

### 1.eranskina: Ebaluazioa.

1. EBALUAZIOA			
EREMUAK		EBALUAZIO TRESNAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
1. NORTASUNAREN ERAIKUNTZAREN ETA INGURUNE FISIKO ETA SOZIALAREN EZAGUERA	1		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bere gorputzaren egituraren gero eta irudi doituago bat adierazten du, bere sentrazio eta pertzepzioez jabetzen doan heinean.</li> <li>- Zentzumenak eta horiei dagozkien sentrazioak ezagutzen ditu, beraien helburuen arteko loturak eginez.</li> </ul>
	2		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gauza berriak egiteko ekimena du eta bere aurrerapenekin disfrutatzen du.</li> <li>- Jolasetan eta taldearen proposamenetan gogoz parte hartzen eta laguntzen du.</li> </ul>
	3	- Behaketa koadernoak	- Pertsona helduen laguntzarekin gailu teknologiko eta digitalak erabiltzen ditu jolasteko eta inguruko errealitatea ulertzeko.
2. NORTASUNAREN ERAIKUNTZAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ETA ADIERAZPENAREN	4	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haurren ahozko adierazpenak</li> <li>- Haurren jarrerak (kideekiko errespetua, parte hartzea e.a.)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sentimenduak eta emozioak ezagutzeko eta bereizteko bidea egiten du.</li> <li>- Askotariko komunikazio-estrategiak erabiltzen ditu (hitzezkoak, musika, gorputzaren erabilera e.a.) bere beharrianak, emozioak, bizipenak, sentrazioak eta gogoak adierazteko.</li> <li>- Gero eta adierazpen agerikoagoak eta egokiagoak egiten ditu bere beharrianak azaltzeko.</li> </ul>
	5		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahozko hizkuntza erabiltzen du egoera askotan eta solaskide ugarirekin komunikatzeko, gizarte-arau batzuk betez.</li> <li>- Askotariko ahozko testuak (kontakizunak, literatura-ekoizpenak, informazioak e.a. ) gogoz entzuten eta ulertzen ditu.</li> <li>- Jolasetan, pertsona helduen eta/edo kideen komunikazio-xedeak ulertzen ditu.</li> </ul>

**2.eranskina: Ebaluatzeko fitxak**

**2.1 Irakasleak bete beharreko tailerraren inguruko fitxa**

EBALUAZIOA					
IKASTETXEA		EGUNA			
EBALUAZIO IRIZPIDEAK				1-5	
1. Tailerra dinamikoa izan da					
2. Umeek ondo pasatu dute					
3. Poesia modu desberdinetan landu da					
4. Material ezberdin eta egokiak erabili dituzte					
5. Dinamizatzailleek ondo azaldu dituzte jarduerak					
6. Ikastetxeko eta irakaslearen arau/nahiak errespetatu dituzte					
7. Tailerrean zehar irudimena landu da					
8. Irakasleari beharrezko materiala eman zaio					
9. Baliabide ezberdinak erabili dira tailerrean					
10. Hizkuntza oinarrizkoa izan da tailerrean (ahozko, idatzizkoa etab.)					
11. Komunikatzeko aukerak sortu dira					
12. Dinamizatzailleek umeak bideratzea lortu dute					
13. Dinamizatzailleak irakaslearekin batera elkarlanean aritu dira					
14. Ikastetxean emandako baliabide eta espazioak aprobetxatu dituzte					
15. Tailerra egokia iruditu zait					
PROPOSAMENAK/HOBETZEKOAK					
..... ..... .....					

## 2.2 Dinamizatzailleek tailerra ebaluatzeko bete beharreko fitxa

<b>EBALUAZIOA</b>			
<b>DINAMIZATZAILEAK</b>		<b>EGUNA</b>	
<b>AZALPEN LABURRA</b>			
<b>JARDUERAK</b>			
<b>MATERIALA</b>			
<b>JARRERAK</b>			
<b>IKASTETXEA/ IRAKASLEA</b>			
<b>ARAZOAK</b>			
.....			
.....			
.....			
<b>HOBETU BEHARREKOAK</b>			
.....			
.....			
.....			
.....			

**3.eranskina: Sekretuen haitzuloaren egutegia.**

1.ASTEA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
9.00-10.00					
10.00-10.45	<b>1.Saioa (TANTAZ-TANTA)</b>				
10.45- 11.15	ATSEDENALDIA				
11.15- 12.30					
12.30- 14.30	BAZKARIA				
14.30- 16.00			<b>2.Saioa (1.IBILBIDEA)</b>		

2.ASTEA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
9.00-10.00	<b>3.Saioa (2.IBILBIDEA)</b>				
10.00-10.45					
10.45- 11.15	ATSEDENALDIA				
11.15- 12.30					
12.30- 14.30	BAZKARIA				
14.30- 16.00			<b>4.Saioa (TXIPRISTINA REN TANTAK)</b>		

3.ASTEA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
9.00-10.00	5.Saioa ( <i>FANTASIAZKO MUNDUA</i> )				
10.00-10.45					
10.45- 11.15	ATSEDENALDIA				
11.15- 12.30					
12.30- 14.30	BAZKARIA				
14.30- 16.00			6.Saioa ( <i>NOR DA ZER?ZER DA NOR?</i> )		

4.ASTEA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
9.00-10.00	7.Saioa ( <i>ABEZEDARIOA</i> )				
10.00-10.45					
10.45- 11.15	ATSEDENALDIA				
11.15- 12.30					
12.30- 14.30	BAZKARIA				
14.30- 16.00			8.Saioa ( <i>XOMORROPOE- MAK</i> )		

5.ASTEA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
9.00-10.00					
10.00-10.45	9.Saioa (ONOMATOPEIAK)				
10.45- 11.15	ATSEDENALDIA				
11.15- 12.30					
12.30- 14.30	BAZKARIA				
14.30- 16.00			10.Saioa (ATZERA KO BIDAIA)		

6.ASTEA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
9.00-10.00	11.Saioa (MUSEOA- PRESTAKETA)				
10.00-10.45					
10.45- 11.15	ATSEDENALDIA				
11.15- 12.30					
12.30- 14.30	BAZKARIA				
14.30- 16.00			12.Saioa (MUSEOAREN IREKIERA)		

#### 4.erankina: "Ur: Euriaren liburua"



“ Kristalezko matxinsaltoak:  
Euria. ”

Poemak ez zion egarria kendu, jakina. Orduan, gaiztakeria bat bururatu zitzaion. Gauzez, ilargia ilberri zegoen batean, zerua ilun-ilun, erabat estalita, eta hodei guztiak lotan, lurrera jaitsi zen, leiho baten zirrikitutik sartu, eta ametsetan goxo-goxo zegoen haur baten gau-mahaian basokada ura ikusi zuen. Edatera hurbildu zenean, hura ezusteal, ez du, bada, ikusi edalontziaren ondoan liburu bat azken orrian zabaldua, non kontatzen baita nola hodei bat egarririk dagoen eta nola haur baten basokada ura edatera doan. Hodeiak liburua hartu, eta izenburua irakurri zuen: UR: ERORI NAHI EZ ZUEN TANTA. Eta, uraz eta egarriaz ahazturik, irakurtzen hasi zen...

BASO HEZEA

Euri lanbroak emeki erantzten ditu zuhaitz distiratsuak;  
hunkiturik daude beren azalari begira.  
Hotzikara arin batek astintzen dizkie hostoak.

EURIAREN SOKAK

Euriak zerua goitik behera dakar,  
milioika soketatik tiraka.  
Egun urdinetan,  
eten egiten dira sokak  
eta zerua dzup! gora itzultzen da irribarre zabalez.

EURIA IGAROTZEAN

Nora ote doa euria  
kalez kale?  
Ondotik igarotzean,  
begirada garbitzen dit.  
Begiak kliskatzen ditut  
eta zipriztin bat  
bihotzera erortzen zait.





